



"Santa Ageda igarotze errito bat da, eta zortzikoa dantzatzea alde bisibleena"

Julen Herrero Beramendi, antropologoa / 2-4



Euskaraldia prestatzen hasita / 6-7

Sakanak urtea 886 langabeteekin itxi zuen, 2023an baino 70 gehiago. Genero arrakala dago / 12-13

Arakilgo Udala bere garraio publikoko zerbitzua sortzeko prozesuan aurrera egiten ari da / 9

Txirrindularitza denboraldia abian: hiru profesional sakandar, eta lau afizionatu / 17

Koldo Flores, Zaldi Beltza Xake Taldea: "Xakean ona izateko ordu asko sartu behar dira" / 18-19

Hamargarren eta azken 'Zama Doinuz Arindu' "bereziarena" izan zen, Etxarri Aranatzen / 23

SINADURAK



"Santa Agedak dena hartzen du; gizartearen alderdi asko"

JULEN HERRERO BERAMENDI ANTROPOLOGOA

Kintoen ospakizuna eta historian zehar izan duen bilakaera eta aldaketak ikertu ditu altsasuarrak ikasketen Gradu Amaierako Lanean

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU


Altsasuko Santa Ageda festaren bilakaera soziala: komunitate baten isla Antropologia graduako Gradu Amaierako Lana egin zuen Julen Herrero Beramendi altsasuarrak, eta ikerketa lane-tik abiatuta zortziko dantzan oinarritutako artikulua argitaratu zuen antropologoak *dantzan.eus* atarian: Ez dadila haria eten: Altsasuko Santa Ageda dantza aztergai.

Zergatik ikasi zenuen antropologia?

Kulturak hartzen duen guztia gustatzen zitzaidalako. Donostian gradua zegoela jakin nuen, eta joan nintzen.

GrALerako Altsasuko Santa Ageda ikertu zenuen. Zergatik?

Gertuko gauza bat zen. Lehenengo ikasturtetik gaia lantzen joan naiz; urtez urte lana garatzen. Laugarren mailan GrALa aurkeztu behar genuela esan zigutenean lan hori neukala pentsatu nuen. Gustatzen zaidan gai bat da. Izan ere, gustatu behar zaizu ordu asko sartu behar dituzulako ikertzen. Gaia hartu nuenez eta pixkanaka lantzen joan nintzenez, gehiago garatzen



Julen Herrero Beramendi antropologo altsasuarra.

joan nintzen, eta aurrera egin nuen.

Altsasun dauden festetatik, zergatik Santa Ageda?

Gauza asko dituelako. Dena elkartzen da: historikoki gauza asko gertatu dira, baita ezagutzen ez nituen gauza asko deskubritu nituen ere. Adibidez, etorkinen gaia ez nuen ezagutzen. Gero dantzaaren barnean gertatzen diren gauzak gizartearen isla dira, kontestuaren isla, bizi garen tokiaren isla... Gauza pila bat elkartzen dira ospakizunean. Beste festekin alderatuz, mami gehiago du.

Zertan da gizartearen isla?

Sozialki egon den bilakaera islatzen da. Gauza anekdotikoak geratu dira, baina horrekin zerbait makrogoa erakarri du. Estructura bat da, gizarte bat. Santa Agedan ez dakit nori gertatu zitzaion pasadizo hori edo beste edonork hartu zuen erabakia segida du hurrengo urteetan. Perfilaren arabera gauza batzuk edo beste batzuk pasatzen dituzu. Adibidez, emakumeen parte hartzea edo duela gutxi mugimendu urriko pertsona batek parte hartu zuela. Kanpotik begiratuta inongo garrantzirik ez duten gauzak dira, baina horiekin pausuak ematen dira. Batzuentzat ez da hori egiteko hautua hartu dutela, besterik gabe egin dute, buelta asko eman gabe.

Nondik abiatu zinen? Zein zen hipotesia?

Bilakaera ikusini nuen. Jatorria zein zen, zer pasadizo eta istorio

"NORBAITEN PASADIZO BATEK EDO ERABAKI BATEK SEGIDA DU HURRENGO URTEETAN"

"PROFILAREN ARABERA GAUZA BATZUK EDO BESTE BATZUK BIZITZEN DITUZU"

eman diren... Nola garatu zen eta nola eman den jakin nahi nuen, eta zergatia aztertzea. Altsasuko Liburutegian dagoeneko dena bilduta dago eta asko lagundu ninduen. Sekulako lana eginda dago eta horrek lagundu zidan pila bat. Dokumental bat ere badago YouTubean eta oso eskertuta nago lana erraztu zidalako. Emakumeen kasuan oso ondo jasoa dago, baina etorkinen pasadizo batekin topo egin nuen (1960ko hamarkadan etorkinak izateagatik ez zietela Santa Agedan parte hartzen utzi) eta aipatu behar nuen. Santa Ageda ospatu zuen Altsasuko jendearekin bildu nintzen eta hori kontatu ondorenesan zidan jarri behar nuela herrian elkartasuna zegoela eta nik pentsatu nuen etorkinen pasadizo hori gertatu zela, eta aipatu eta nabarmendu behar dela. Ikertzailer bezala ez nuen espero gertatu izana. Errealitate bat izan da, eta ezin dut ezeztatu.

Zer nolako ikerketa izan da?

Etnografia bat hainbat iturri erabiltzen. Iturri dokumentalak eta bigarren mailakoak erabili ditut; argazkiak, behaketa eta parte hartzaileen esperientzien inguruko elkarrizketak. Urtero plazan gauza asko ikusten dira.

Berez, plazara ikerketarako behatza joaten zinen?

Berez ez. Memoria erabili dut ere. Batzuetan bai. Kintaren arabera eta ezagutzen dituzun edo gertutasunaren arabera gehiago edo gutxiago joaten zara plazara, baina joaten naizenean fijasen naiz: begira zer brodatu duen horrek edo nork atera duen ez dakit nor... Nigan dagoen zerbait da, ezin dut deskonektatu.

Espero ez zenituen gauzak topatu dituzu?

Etorkinen kontua eta gero aniztasun funtzionala eta desgaitasunak dituzten pertsonak. Irakasleak esaten zidan antropologian txikitik handira joan behar zarela. Zerbait txikian fijasatu eta hortik lantzen joan. Orduan, etorkinen gaia pena bat izan zen gehiago ez garatzea. Zipriztinak aipatu ditut. Baina GrALak muga bat du, eta ni nahiko pasatu nintzen. Ondo-



- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Errotulazioak
- Jaso eta etxera eramateko zerbitzua



rioetan jarri nuen gustura idatziko nuela gehiago, eta irakasleak esan zidan asko idatzi nuela. Aurkitu nuen ere aniztasun funtzionala zuen pertsona bati errege izatea tokatu zitzaiola eta eztabaida egon zen ea nola hartuko duen kargua. Ez zen gutxiesten, baina komentarioak egon ziren. Azkenean, lagundu zuten eta arrera egin zuen.

DANTZA


Zer da zortzikoa? Zergatik egiten da Santa Agedan?

Zortzikoa dantza sozial bat da. Ingurutxo bat da, soka dantza bat. Erdi Arotik datorren dantza bat da. Data jakinetan egiten da: San Juan, San Pedro, Santa Ageda... Batez ere eguna Santa Ageda da. Kintoek dantzatzeko dute, binaka, egun bakoitzean batek. **Beste dimentsio bat hartzen du Santa Agedak.**

Berez Santa Ageda igartze errito bat da. Adinez aldatzen denean ematen da, gazteak adin nagusitasunera pasatzen direnean, eta zortzikoan, dantzan, festaren alderdi bisiblea kondentsatzen da. Azkenean, Santa Agedako bost egunak pasatzean suposatzen da gizartearen aurrean heldu bezala agertzen zarela. Dantza hori dantzatu behar duzu behin bizitzan. Van Geneppen igarobide erritoaren teoria aplikatu daiteke: Hasi aurretik egoera preliminar bat da, kintoa oraindik ez da heldu arora igaro. Txistua eta dantza hastean egoera liminal batean egongo da, erdibidea. Kintoak bere zortzikoa bukatzean egoera postliminarrera igaroko da, eta herriaren aurrean heldu moduan agertuko da. Zortzikoa ere omentzeko erabiltzen da. Kintoak pertsona ateratzen duenean, omentzeko modu bat da ere; esaterako, Altsasuko auziperatuen ama atera zutenean edo hildako familiarreko bati ateatzen dute. Bestetik, omenaldietan ere dantzatzeko da ere: Ester Irisarri, Benignori, Mikel Apolazari, Juan Kruzi eta abar zortziko bat eskaini zaie.

Dantza aldatu da?

Aldatuko zen, bai. Urizarrek eta txistulari zaharrenek esaten zuten gutun pausuak desberdinak zirela. Gehiago markatzen ziren eta dantzako era ere desberdina zela. Pertsonaren arabera ere desberdina izango zen. Aldatu dena konfigurazioa da: nork dantzatzeko duen (emakumeek ere egiten dute), nor ateratzen duten,



1920. hamarkadako kinto-gizonak eta emakumezkoak. DBEGO SALAZAR HERRI ARGAZKI BILDUMA



Jatorrian emakumezkoen festa bat zen; harilkatzera biltzen ziren. UTZITAKOIA

zergatik ateratzen duten... Orain nik uste kutsu pertsonalagoa ematen zaiola. Zortzikoa bitartean normalean bikoteak sexu berekoak izan behar dute. Oso pareja misto gutxi ikusi ditut. Urte batean edo bita eta kopuru faltagatik izan da. Kinto mutiko bati gertatu zitzaion bikotea buruzagia izatea tokatu zitzaion eta berak nahi zuen neska batekin jarri eta ez zioten utzi. Esan zioten mutiko batekin jarri behar zuela eta sekulako haserrea hartu zuen. Azken egunean gona jantzi zuen eta neskekin dantzatu zuen.

Ospakizunean aldaketa asko izan dira, zergatik bikoteetan ez?

Mutiko honek esan zidan frontoian ikasten ari zirela ez ziotela utzi. Berak nahi zuela, baina ez ziotela utzi. Ez dakiela zergatik. Egia da nik denak ikusten ditudala mutiko-mutikoarekin

eta neska-neskarekin. Baina ez nion garrantzia handirik eman. Esan zidanean hori harritu ninduen. Horretan ez dakit asko aldatu den, araua izaten jarraitzen du. Hau nire gauza da, baina uste dela normalena mutikoak mutikoekin harremantzen direla, eta mutiko eta nesken bikoteak ikusten direnean oso perfil jakinak dira; mutikoekin hainbeste ibiltzen ez direnak. Kintoak lagunekin egiten duzu, eta azkenean ezagutzen duzunera jotzen duzu. Askorendako beste ikastetxetako jendearekin harremantzeko edo sozializatzeko lehenengo aldia da Santa Ageda. Gerta liteke tenisean edo bestelako ekimentera norbaitekin kointziditzea, baina denboran mantentzen den harremana bakarrik kintotan gertatzen da.

Kintoak nor ateratzen duen dantzan sinbolismoa dauka?

Normalean gorteatzeko egiten zen. Hori galdu da. Gure gurasoen garaian eta abar gustatzen zitzaion kinto neska ateratzen zuten. Zen pixka bat esateko: gustatzen zait neska hau. 1960ko hamarkadako elkarrizketarekin hizketan esan zuten atera zitue-

"ZORTZIKOA POLITA DA, BAINA NOLABAIT PLAZARATZEN ARI ZARA NOREKIN ZAUDE; EZ DA GUTXI"

"ZORTZIKOA OMENTZEKO ERE ERABILTZEN DA; BAI PERTSONA ATERATZEN BAI DANTZA BERA"

netik horietako batekin ezkondu zela emakume bat. Txorakeri bat dirudi, baina ez da. Azkenean herri batean gaude. Kontrol soziala, denok ezagutzen dugu elkar, badakigu nor dagoen no-rekin... Zortzikoa, nire ustez, polita da, baina dantza baten bidez plazaratzen da nor dagoen no-rekin, bestea ez dakit zer... Batez ere bikote heterosexualetan ikusten da. Santa Agedatik gertu hasten baduzu erlazioa, zortzikoan dantzara ateratzearena pauso garrantzitsu bat da. Agian jendearendako ez, baina harremana egonkortzeko modu bat da. Plazaren aurrean bikotea aurkezten ari zara; ez da gutxi. 15 minutuko gauza bat da, baina askoz gehiago bada ere. Jende helduagoetan oso errotuta dagoen zerbait da: "Hau nor da? Bere bikotea izango da?".

HURRENGO ORRIAN JARRAITUKO DU »

« AURREKO ORRIAN HASI DA

Beti asumitzen bada elkarrekin daudela. Gazteen artean harremanak gehiago ezagutzen dituzte, eta ez da hainbeste gertatzen. Gainera, orain harremanak agian likidoagoak dira eta ez zen lehen zegoen egonkortasuna. Bikote asko hausten dira eta pertsona bat ateratzen baduzu ez du esan nahi berarekin ezkonduko zarenik. Batzuetan esaten da: ez dizu pena ematen ateratzen duzuna eta gero berarekin ez egotea? Testuinguru edo kontestu horretan egin duzu. Aldatu da ere sexu bereko norbait ateratzearena, baina normalean senide bat da. Urdiainen ez da hori gertatzen, mutikoek aita ateratzen dute. Ez dakit nondik datorren.

Hala ere, sexu berekoak oraindik ez dira oso ohikoak, ezta?

Ez da ikusten, baina bizi garen gizartearen isla da. Etxarriko gazteei egin zioten elkarrizketa batean esan zuten badirela gai batzuk aurrera egin dutela, baina beste batzuk ez direla gizarteratu, homosexualitatearenak oso izkutuan jarraitzen du.

Zortzikoa eta Korrika alderatzen dituzu. Nola?

Klasean Teresa del Valleren monografia bat irakurri genuen. Teresa del Valle antropologiaren barruan eminentzia bat da, Euskal Herrian, espainiar estatuan, baita munduan ere esangarria. Berak Korrikaren inguruko lan bat egin zuen, eta Euskal Kulturaren irakasgaian horren inguruko lana egin nuen ere. Ikerketa bat egiteko orduan egin dagoen zerbaitetan oinarritu behar zara, ezin dira izan nire burutazioak jarri besterik gabe, konsistentzia bat izan behar dute. Berak hori publikatu zuen eta zortzikoarekin antzekotasunak ikusi nituen: ekintza sinbolikoa eta esanahiez betetako gertakaria da, hainbat sinbolo ikur, janzkera eta abar ikusten direlarik. Etnizitatea indartzen duen ekintza bat izan daiteke ere.

BILAKAERA**Zeintzuk izan dira Santa Agedak izan dituen aldaketak?**

Jatorrian neskato gazteek ospatzen zuten festa bat zen. Harilkatzeko etxeetan biltzen ziren eta hortik herriko mutikoekin topaketak egiten zituzten. Koplak kantatzen zituzten eta elkarketa fisiko bat egoten zen. Horrek baliatzen zuten harremanak sortzeko. Fertilitatearekin lotutako erritoak zeuden.

Antropologo batzuk hori ematen zela esaten dute, eta Altsasu eta Urdiain aipatzen dute. Baina espainiar estatu osoan ematen ziren horrelakoak. Zamoran, adibidez, *zanganoak* deitzen ziren; *zanganoak* erlamandoak dira, erle emeak ernaltzen dituztenak. Beraz, emakumeak bakarrik biltzen ziren eta mutikoak joaten ziren; gazteak eta musikariak, gehienetan. Erromatarren garaitik datorrela diote, matronala eta horrelako festak. Baina aurretik seguruenerik zerbait ere egongo zen. Espainiar estatuan garai honetan koplak asko daude. Hemen, Altsasun, soldaduskarekin lotu zen. Baina lehen ez zen soldaduskarekin; gazteariaren zerbait zen, eta ia eksklusiboki emakumeena. Emakumeak ziren mutikoak gonbidatzen zituztenak. Etxe barruan eta ezkaratz horietan zer gertatzen zen ez dakigu. Biltzeko aitzakia bat zen. Azkenean, taldeak irauteko modu bakarra fertilitatea da. Gero, urteekin, festa kanpora ateratu zen. Garai honetan ere inauteriak ziren, eta udaberriarekin lotuta daude. Bitxia da soldaduskarekin lotzen hasten zenean emakumeek ausentzia hori gordetzen zutelako esaten dutela, baina kopletan bilduta dago Jerezen, esaterako, iparraldetik soldaduak joaten zirela eta etxean negar egiten zuten bitartean kintoak gaztetxoekin joaten zirela ongi pasatzera. Askatasun sexuala erakusten dute koplek, nolabait.

Zein garaian izan zen?

Ez dakit data zehatza, baina aspalditik dator. XIX. mende bukaeran 200 gora biltzen ziren Jimeno Juriok eta Dolores Julianok jasotakoaren arabera. 2.000 biztanleko herri batean nahikotxo da hori. XX. mendean tailerrak hasi ziren eta 1905ean alde publikoa desagertu zen. Sute bat egon zen eta orduan arlo publikoa sustatzen hasi ziren gehiago, gizonen esku, eta etxeetan emakumeek jarraitzen zuten. Amaia Oiarbidek eta Izaskun Etxeberriak egindako elkarrizketetan esaten da jendea pixkanaka gutxitzen hasi zela, denborekin desagertu zela, eta zeregin hori kintoetara pasa zela. Ez dakigu garai batean emakumeek dantzatzen zuten edo ez. Izan daiteke. Oier Araolazak esaten du generoaren zorrotasun hori oraingo dela. Ez naiz ausartzen esatera dantzatzen zutenik, ez dakidalako, baina izan zitekeen. Emakumeena etxe barrukora bideratuta zegoen gehiago, eta oraingo



2005ean zortzikoa egin zuten lehenengo emakumeak; Eneida eta Garazi. DOKUMENTALA



2017an gonarekin dantzatu zuen kinto mutila egoera bat salatzeko. UTZITAKOIA



Zortzikoekin eta jantziekin zendutako omenaldiak egiten dituzte. UTZITAKOIA

"JATORRIAN NESKEK OSPATZEN ZUTEN; ETXEETAN BILTZEN ZIREN, ETA MUTIKOAK GONBIDATU"

"ORAIN JANTZIAK ESKLUSIBOAGOAK DIRA; BRODATUETAN MUGARRIAK JARTZEN DIRA"

ikuspegitik izan daiteke domestikotasunaren zerbait zela, baina hori zen festaren erroa edo bihotza, jatorria. Izaera femeninoa zuen. Harilkatzea emakumeek egiten zuten, eta hori da festaren oinarria. Horrengarrantzia galtzen joan zen eta soldaduskara pasa zen; kintoetara pasa zen zeregin. Nik uste festa ez galtzeko izan zela. Beste aldaketa bat da 21 urterekin egiten zela. Kintoena ere publikora pasa da, lehen udaletxean egiten zen, pribatuan, eta orain Gure Etxean egiten da.

Zein momentutan bihurtu zen Santa Ageda igarotze errito bat?

Duela gutxiakoa da. Gure aitona amonaren garaian adin nagusitasunarekin lotzen zen.

Jantziak ere aldatu dira. Zeren erakusle da?

Orain eksklusiboagoak dira. Lehen gehiago uzten ziren; nesken jantzien kasuan gipuzkoar erakoak ziren, mertzerietan erosten zirenak. Orain eksklusiboagoak eta pertsonalizatuagoak egiten dira. Gizartearen joera ere bada zerbait kolektiboa den arren, kutsu eksklusibo hori emateko. Lehen homogeneoagoa zen. Brodatuak ere aldatu dira, eta bakoitzak jartzen ditu bere bizitzako mugarrak. Zapietan batez ere; mutikoen makiletan. Brodatzen dutenek ez zuten ulertzen: loreak brodatzetik motor kaskoak edo ballet zapatak brodatzera pasa dira; beste testuinguru batetik etortzen direlako. Heriotzak integratzeko modua ere badira zapiak eta brodatuak. Apaingarrietan gogoratzen zaie eta zortzikoa dantzatzen zaie. Omenaldiak egiten dira ere, presoena gaia ere politika ere sartzen da. Festan alderdi asko sartzen dira: harreman sexu afektiboak, afektiboak, familiarrekoak, hierarkiak, politika... Dena.

Zer ondorio ateratu zenituen?

Aldatu dela, eta behar duela aldatzea ere. Gizartea aldatzen doan heinean festa aldatu behar da. Arlo batzuetan kostatu da. Ez da egun batetik bestera edo organikoa izan den zerbait izan. Baina aldatu da, eta aldatuko da. Geroz eta gehiago gauza berriak ikusiko ditugu. Agian pretentsiorik gabe egiten direnak. Nik mutiko bikote bat badaukat, plazara aterako dut inongo buruhausterik gabe. Edo adimen eta mugikortasun urriko pertsonak orain arte ez dute ia apenas parte hartu, eta pixkanaka ari dira integratzen ere. Aldatuz joango da, eta gauza berriak ikusiko ditugu.



ASTEKOA

RAF ATXURI

Tomas Zumalakarregi, berriz bisitan

Jose Mari Esparzak berriki eman du argitara *Zumalacárregui y la República de los Pirineos* liburu mamitsu eta datu esanguratsuz jositia. Entsegu honen abiapuntua Mikel Sorauren historialariak aurkitu dokumentu batean datza, 1834ko agiri honetan Madrilen den Nafar Diputazioko goi kargudun batek Zumalakarregiren uestezko asmo errepublikazalaren berri ematen du. Errepublikasmo asmo honek Hegoaldeko lau lurraldeak besarkatuko lituzke.

Bada, karlismoa eta haren adar ugari eta guztiz kontraesankorrak funtsezko osagai izan dira 1832tik hona euskal historia garaikidea ulertzeko. Nik agian Napoleonen garairaino ekarriko nuke auzia, karlistaldiak Frantziako politika iraultzaile/kontrairaultzailerik gabe nekez ulertuko ditugulako.

Karlistak eta liberalak, lehengo Agramont/Ganboa eta Beaumont/Oinatz berriak. XIX. mendeak badu, ordea, gehigarri ideologiko modernoa, eta gaurdaino iristen dira oihartzun urrun eta haiek. Nafarroa Garaian, historiaren gaineko ikuspegiak kontrajarriak dira guztiz, eta hainbat pasarte historikok (Irulegiko eskuak, Orreagakoak, Navas de Tolosakoak, 1512koak, Karlistaldiek, Gamazadak...) ulerbide desberdin eta gatazkatsuak eskaintzen ditu.

Afera da Esparzak (Tafallakoak) herritar karlismoan hazi errepublikazale, abertzale eta berdinzaleak nabarmentzen dituela, klase borrokaren elementuak gehitzen dizkiola, eta ulerbide hori oso urruti dago karlismo erreazionario, ultramarkiko eta katoliko oldarkorretik.

Jakina da karlismoak garatu zituela zenbait adar diferente eta elkarren guztiz etsai. Halaber, 1936an karlismo hegemonikoak izan zuen eginkizuna eztabaida ezina da.

Nolanahi ere den, eztabaida historiografikoa lantegi hau astindu eta aberasteko egoki gerta daiteke. Egungo liberalak erantzuteko prest ote daude?

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak bame). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteartea 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

ZUZENKETA

Aurreko zenbakian gaztainadien proiektu pilotuaren berri eman genuen. Ez genuen aipatu, ordea, haren jatorria: Arakilgo Udalak bertako bariatateak berreskuratzeko egindako proiektua. Haren bidez beste ate batzuk zabaldu ziren, esaterako, gaztainadiak berreskuratzeko.

HARA ZER DIEN

REE-ren praxi ezegokia

AUTOPISTA ELEKTRIKORIK EZ

Autopista elektrikoen labirintoak oraindik argitu gabe jarraitzen duenean, Red Electrica de España enpresak Itxaso/Castejon-Muruarte goi tentsioko linea eraikitzeko behar dituen lurren gaineko eskubideak lortzeko ahaleginetan jarraitzen du. Ehunka lur jabeen artean kezka, nahasmena eta kikiltzea bila dezakeen erantzukizun gutxiko praktika irregularra.

REE-k ez du oraindik ez Administrazio Baimena ezta Erabilera Publikoko Adierazpena lortu, eta hala ere, lineak zeharkatuko dituen

herriak bisitatzeko ari da kontratuak eskaintzen.

REE-ren jokabide irregular eta praktika txarren aurrean, galdera asko daude erantzunik gabe. Nola liteke REE-k, Administrazio Baimenik gabe, lurren okupazioen zehaztapenak egin eta sailkapenak, mozketak eta sarbideak zehaztea? Nola liteke "servidumbre" eremuaren zabalera zehaztea, oraindik ez dakitenean zenbat zirkuitu izango diren eta, beraz, zein dimentsiotako torretak behar izango diren? Lurjabeen edo tokiko eta foru erakundeen eskura ez dagoen, administrazio tramiteetatik kanpoko ezkutuko informazio pribilegiatuarekin jarduten al da REE?

Segurtasun juridiko eta teknikorik gabeko egoera honek ez dirudi oztopo, REE-k

lurra bereganatzen saiatzeko, etorkizuneko desjabetze baten mehatxuarekin. Espekulazio maniobra bat ere izan daitekeena, goi tentsioko negozioa benetan, orain linea bategatik ordaintzea, gero hirugatik ordaindu dezke.

Egoera honen aurrean, Autopista Elektrikorik Ez Plataformatik, REE-ren praktika gaitzesgarriak salatzen ditugu, eta lasaitasuna eskatu nahi diegu lurren jabeei. Beharrezko baimenik ez duten bitartean, azkenean azpiegiturak izango dituen ezaugarriak ezagutzen ez ditugun bitartean, aurkeztutako errekursoak eta aurkeztuko direnak ebazten ez diren bitartean, enpresa elektrikoarekin inolako akordioarik ez sinatzea aholkatzen diegu.

GUTUNA

Azken kantuarren bila... eskerrik asko zama doinuz arindu

JOXE ALDASORO JAUREGI ETA IÑIGO ORELLA ALTZUETA

Bukatu da Zama Doinuz Arinduz-en ibilbidea. Hamar urtetan hirurogeita hamar artista eta lau mila ikusle baino gehiago. Auzolan erraldoi baten zenbaki hotzak, handiak, izugarriak, baina hotzak. Berotasuna urtez urte Etxarriko kultur etxean jotako akordeek, abesturiko melodiek eta ikusleen erreakzioek eman diete. Brigade Locoren hitzetan: doinuen uhinek elkartasun uhin erraldoia.

Barrez erantzun zioten entzuleek Haimar Arejitaren ateraldiari (Gatibu): Marte konkistatzeko adina indar ba omen dugu. Ez dugu ezerekin jabe egin nahi, ordea, geure buruena ez bada. Konkistatu nahi ditugun lurralde bakarrak, askatasuna, justizia eta bakearenak dira, Porrotzek zehaztu zuen moduan. Behin betiko irtenbidea: presoak etxean, presoak kalean.

Tristurak eta malkoak ikusi, entzun eta sentitu ziren igandean, San Donato ikastetxe frontoian: hutsunea gogoraraztea ez da samurra. Urte asko pasa da. Ez dugu lortu nahi genuena. Bidean gaude. Ari gara. Hurbilketa zalantziarik hasieran. Dispersioarekin

bukatu genuen gero. Etxekoekin egoteko baimenak. Lan egitekoak. Baimen bereziak. Hirugarren graduak. Eskumuturrekoak. Kolektiboaren erdia kalea zapaltzen ari da jada. Ez da gutxi.

Ez da azken Zaman bildutakoena nahia bete. Harritzarra daukagu aurrean: modu berezian aplikatzen diren lege are bereziagoak. Kas-kas-kas: harginak gara. Jarraituko dugu zizel eta mailuarekin. Sortuko ditugu elkartasun ekimen berriak. Ideia berriek ekarriko dizkigute jaialdi eta mobilizazio berriak, berrituak. Egindakoarekin harro, pozik. Eskerrik asko Zama. Hurrengo auzolanaren zain.


www.guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

Maketatzailea:
Lune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maidor Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eus
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eus
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Guaixe txokoa, zuengana gerturatzeko modua

Irurtzun izan zen haren ibilbidearen aurreneko geldialdia. Guaixe txokoak ibarreko euskarazko hedabideak sustatzen dituen fundazioaren lana sakandarrei gerturatu nahi du. Helburua da 'Izan giltzarri' dinamika udalerrri guztietara eramatea

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Irurtzunen Paris 365 jantoki sozialaren aldeko elkartasun azoka hartu zuen larunbatean. Bertan zen ere Guaixe fundazioaren txokoa. Gure hiru lankidek txotik pasa zirenei proiektuari buruzko argibideak eta bazkide-tza aukeren berri eman zieten. Gainera, poltsak eta koloretzatzeo liburuxkak eskuratzeko aukera eman zuen txokoak. Animatuena mozorratu eta photocalleko argazkirako jarri ziren.

Fundazioko kudeatzaile Goizeder Anton Iturraldek azaldu

duenez, "fundazioa herritarrei gerturatzeko saioa izan zen Irurtzungoa. Guaixe fundazioa ezagutarazi nahi dugu". Oinarritzko galdera batekin hasi ziren Guaixeko lankideen eta herritarren arteko harremanak: Guaixe ezagutzen duzu? "Hortik aurrera elkarrizketak hasi ziren, baita sorpresak jaso ere".

Ekimen horren bidez, "elkar ezagutzeko, elkarrekin eztabaidatzeko eta ekarpenak jasotzeko aukera izan nahi dugu. Horregatik atera da Guaixeko lantaldea kalera. Baita Sakanako euska-



Jendea photocallean parte hartzera animatzeko, lehenik lankideak jarri ziren.

Irurtzun Paris 365en alde

Iratxo elkarteak Iruñeko Paris 365 jantokiaren inguruko hitzaldia hartu zuen ostiral iluntzean. Hurrengo goizean, plazako arkupe guztiak bigarren eskuko elkartasun azoka hartuta zeuden. Egueraldiagatik jendea kosta zitzaion etxetik ateratzea, baina eguerditik aurrera animazioa izan zen. Ane Martijak doinua jarri zion azokari. Zer dasta ere izan zen.



razko hedabideak sustatzen dituzten bazkideen kopurua handitzeko ere". Antonek aurreratu duenez, "Irurtzunen harrera ona egin ziguten. Gure asmoa Sakanaz guztia zeharkatzea da. Guaixe fundazioa sakandar guztien-gana gerturatzeko". Datak komunikabideen bidez jakinaraziko dira. Baina zain ezin dena egon guaixe.eus webgunean du horretarako aukera. Izan Giltzarri!

Guaixeren informazio lokala

Guaixe parte den TOKIKOM taldean aspalditik gabiltza kezkatuta sare sozial korporatiboek hartu duten norabidearekin, eta iruditu zaigu zerbait egiteko unea dela. X, Facebook, Instagram, TikTok, Youtube... desinformazioa, eskuin muturreko interesen defentsa eta erabiltzaileen osasun mental eta fisikoaren gainera kalteak gero eta nabarmenagoak dira sare horietan, eta gaiztotze prozesu hori asko bizkortu da azken urtebetean.

Erabiltzaileen aldeko sare alternatiboak

Hori ikusita, TOKIKOMen erabaki dugu Mastodon sare sozial irekira jauzi egitea. Mastodon hainbat komunitate txiki osatutako sareen sare bat da, eta haren atzean ez dago korporazio multinazional gaiztorik, bere helburu bakarra erabiltzaileen arteko komunikazioa sustatzea da.

Hori dela eta, TOKIKOMek tkm.eus sortu du, Mastodon sareko zerbizari bat, tokiko informazioan espezializatua, eta bertan ireki dugu kontua taldeko hainbat eta hainbat komunikabidek. Gaurtik aurrera, @guaixe@tkm.eus kontuaren bitartez jarraitu ahalko da bertan hedabide honen edukia.

Goazen lagunok!

Guaixetik, Goazen lagunok kanpainarekin bat eginez, gonbitea egin nahi dizuegu jarraitzaileoi, korporazio erraldioen menpeko sare sozial komertzialetatik Mastodon bezalako sare sozial irekietara pasatzeko: algoritmorik gabe, eta batez ere, geuretik eta geuretako sortuak. Sortu dugun kontu berriari jarraitzeko, errazena Mastodon sareko kontu batetik egitea da.

Dagoeneko Mastodon kontu bat baldin baduzu, Mastodoneko bilaketa kutxan gure kontua sartu, eta berehala jarraitu ahalko duzu. Baina oraindik ez baduzu Mastodon konturik, euskaraz funtzionatzen duten bi zerbizari daude aukeran: <https://mastodon.eus> eta <https://mastodon.jalgi.com>. Haietan kontu berria irekitzea oso erraza da.

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Bi urte eta erdiren ondoren, Euskaraldiaren laugarren edizioa maiatzaren 15etik 25era izanen da. Eraberrituta heldu da aurtengo Euskaraldia. Batetik, udazkenean ospatzetik udaberrian ospatzera pasa da. Bestetik, antolatzaileek euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua sortu nahi dute. Hau da, "Euskal Herri osoan euskararen erabilera aktibatuzko prest dagoen jendea batu, trebatu, antolatu eta dinamika soziala indartu" nahi dute antolatzaileek. Gaineratu dutenez, "euskararen erabilera eragiteko daukagun tresna, bide eta modu masiboena da Euskaraldia". Azaldu dutenez, 320.000 herritar baino gehiago dira Euskaraldian noizbait parte hartutakoak. Atzenekoan, 2022koan, esaterako, 2.142 sakandar ados jarri ziren eta euskararen erabilera handitzeko ariketa kolektiboan parte hartzeko. Euskara milaka pertsonari inporta zaigunaren seinale.

Lakuntza eta Lizarraga

Euskaraldiko webgunean asteazkenean kontsulta eginda, Sakanako hamabost udalerrietatik lau besterik ez zeuden Euskaraldian izena emanda: Lakuntza, Etxarri Aranatz, Iturmendi eta Altsasu. Mapa horretan ez dira kontzejak agertzen, baina, esate baterako, Lizarragako Euskaraldia batzordea martxan da. Bertako kide Idoia Gurutzarri Senarrek azaldu duenez, "gurea bezalako herri txiki batean kultura batzorde bat dagoela esan dezakegu, talde irekia da non momentuko beharren eta nahien arabera parte hartzen den, auzolanean. Euskara, euskal kultura eta herri giroa bulkatzen duen taldea dago. Korrika eta Euskaraldia bezalakoetan parte hartzea eta antolatzearen 'ardura' bere gain hartzen du". Gurutzarrik gaineratu duenez, Sakanako Euskaraldia batzordean parte hartzen dute ere. Aurreratu duenez, Lizarragan Euskaraldiaren berri eman eta aurkezpena egingen dute otsailaren 8an. "Trikitixa festa dago eta herri txikia izatean, halakotan biltzen gara jende gehiena, halakoak probestu behar ditugu!"

Lakuntzak izena eman du. Baina Euskaraldia antolatuzko deialdirik ez dute oraindik egin. "Aiaupenarik euskara taldean hitz egingo dugu lehenengo. He-



Sakanako Euskaraldiko batzordean parte hartu zutenetako batzuk. Nafarroako arduradunek hainbat argibide eman zizkieten.

Euskarari ekiteko, hauspoa prestatzen

Euskaraldia estreinakoz udaberrian izanen da. Hura behar bezala antolatzen hasteko herrietan batzordeak eratzen hasi dira, eta Sakanako batzordeak ere aurreneko bilera izan du. Ariketan eta antolakuntzan herritarrak dira protagonistak

rrian Euskaraldia Batzordea osatu nahi dugu hainbat norbako eta talderekin", azaldu du Ainara Lopeteggi Lopezek. Bi herriek aurreneko Euskaralditik parte hartu dute Euskaraldian. Gurutzarrik nabarmendu duenez, "jarrantzea garrantzitsua iruditzen zaigu, guk ere ariketa erraldoi horren parte izan nahi dugu". Kezka bat ere azaleratu du: "euskararen erabilerearen inguruan ere kezka badagoela esanen genuke. Euskaraldia eta beste ekin-

tzak ere, Korrika adibidez, ezinbestekoak dira jendea kontzientziarazteko. Urtean zehar erabilpenean erlaxatuago dabilena halakoetan kontzientziatzen dela eta euskarari dagokion balioa ematen diola uste dugu. Bestalde, pertsona ez euskaldunen jarrera proaktiboa baloratzeko ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu", nabarmendu du. Lopetegiren iritziz, "Euskaraldia Lakuntzarantz ariketa interesgarria da. Ezagutza eta erabilera datuen

artean alde handia dago. Eta ohiturak aldatzeko gune edo espazioak sortzeko aukera paregabea da Euskaraldia".

Data aldaketaz

Bi euskara aktibatzaileek egoki jo dute Euskaraldia azaroa eta abenduan egitetik maiatzera pasatzea. "Udaberrian kalean gauzak egiteko aukera hobetzen du, ondorioz, euskararen erabilera sustatzeko ariketa ikusgarriagoa izan daiteke", nabarmendu du

Lopetegik. Ez, ordea, gaztigatu gabe: "maiatzean agenda gainezka egoten denez ekintza horiek ere aprobetxatu beharko ditugu". Lizarragan galeratxo bat sumatzen dute: "gure kasuan Euskaraldian hasiera bat zetorren San Klemente festen hasierarekin eta une hori herri guztiarengana iristeko aitzakia eta momentu oso ona zen. Lehen esan bezala, herri txiki hauetan jai girotan biltzen gara herritar gehienak eta aukera ona izaten da ekintzak egiteko eta euskara jai giro horietan indartzeko". Gurutzarrik azaldu duenez, "aurten udaberri aldera hasiko denez, zerbait prestatuko dugu, saiaturako gara ahalik politen eta parte hartzaileena egiten!".

Euskaraldi bakoitzak bere leloa du. Aurtengoa *elkar mugituz egingo dugu* da. Leloak zer iradokitzen dien galdetuta, Lopetegik: "euskarak aurrera egiteko elkarrekin egin beharko dugu, norabide berean". Lakuntzarrak gaineratu duenez, "erabilera sustatzeko beharrezkoa da talde inplikazioa". Lizerratarrek gaineratu duenez, "elkarrekin beti ere are indar eta ikusgarritasun handiagoa ematen da". Gurutzarrik nabarmendu duenez, "batak bestearen aitzakiarekin eta laguntzarekin euskaraz gehiago egingo dugulakoan gaude, talde ariketan partaide izatean babestuago sentiarazten zaitu eta horrek indartzen gaitu eta euskara laguntzen du".

Sakandarrak

Euskaraldia batzordeek euskararen erabilera aktibatuko duen mugimendua sortu nahi dute. Aurreko hiru edizioek erakutsi dute ariketa eraginkorra dela, milaka herritarrek hizkuntza ohiturak aldatu eta euskaraz

aritu zirelako Euskaraldian, eta ondoren hartutako ohitura horiek mantendu zituztelako. Hau da, hiztunak ahalduntzen laguntzen duen ariketa soziala da. Eta, aldi berean, Euskaraldiak erakusten du euskararen biziberritzeko prozesuan parte hartzeko milaka euskal herritarrek nahia dutela, parte direla.

Horren jakitun, Lizarragakoak eskatu du lizerratarren "parte hartze aktiboa eta inplikazioa bai euskararen erabilera, bai besteetan. Parte hartzea, azken finean, herria bizirik mantentzea delako, denon artean herria egitea da. Gainera, Lizarragaren herri identitateak euskararekin lotura estua du, ezin dira bata bestea gabe ulertu". Lakuntzako batzordeko kideak eskatu du "euskararen aldeko jarreratik pauso bat eman eta erabiltzera pasa gaitezten". Lopetegik gaineratu duenez, "gure kasuan, euskalkia ez galtzeko lanean gaude, horri ere bere tokia emango diogu Euskaraldian".

Hizkuntza inertiak ez dira oso begi bistakoak, baina oso errotuta daude. Euskaraldia ez da horiek aldatzeko kanpaina bat, edo festa bat. Euskaraldia egun jakinetan egiten den ariketa soziala da. Euskararen lurralde osoan egiten da, makina bat aho-bizi eta belarripresten parte hartzeari esker. Ariketa sozial ezinbestekoa da Euskaraldia, baina ez da nahikoa. Dinamika gizartean eta denboran zabaltzeko aukera ederra da hauxe bera.

ARIKETA SOZIALAK, ATZERA ERE, EUSKARA ERDIGUNEAN JARRIKO DU HAMAR EGUNEZ

HITZORDU PERTSONALIZATUAK HARTZEKO AUKERA

948 460 286 - etxarri@ikastola.eus

BILERA INFORMATIBOAK

LAKUNTZA: otsailak 5, 17:00, udaletxean.

ETXARRI ARANATZ: otsailak 6, 17:00, ikastolan.

ARBIZU: otsailak 10, 17:00, ikastolan.

ATE IREKIAK

ETXARRI ARANATZ:

otsailak 25, 09:30.

ARBIZU: otsailak 26, 09:30.

biyerko Sakana eraikitzen



ANDRA
MARI
IKASTOLA





Langileek deituta, kontzentrazioa egin zen Olatzagutian ostiralean. UTZITAKOA

Egoki saltzeko bidean jarri du epaitegiak

Enpresaren ondasunak salduta haren zorra estaltzeko asmoa luke. Plantilla azarotik kobratu gabe dago eta, gauzak ongi, langabezia maitatzean jasotzea espero dute. Lanpostuen defentsan mobilizatzen jarraituko dute

Alfredo Alvaro Igoa OLATZAGUTIA
Langileek abenduko zubian, oporretan zeudela, jakin zuten enpresa itxiko zela. Bakarren batek Interneteko inbiliaria baten web orriko iragarki baten lotura bidali zien. Han irakur zitekeenez, enpresa jubilazioagatik salgai zegoen, eta iragarkiak lantegiko hainbat argazki zituen. Itxieraren berri horrela jakiteak langileak haserretu zituen, eta lanera bueltatzean kontu eske joan ziren zuzendaritzarengana. Orduan jakin zuten hartzekodunen konkurtoa aurkeztuko zutela. Hala

azaldu du langileen ordezkari Javier Lizarraga Lopezek.

Epaileak konkurtsoko administratzaileak joan zen astean izendatu zuen. Hilabete eta hilabete eta erdi artean iraundera du itxiera prozesuak langileen kalkuluen arabera. Hala ere, aste honetan langileak lantegian lanean ari dira. "Administratzaileak esan digunez, leihobatzuk egin behar dira. Haiek salduta nomina bat edo zatiren bat ordaintzeko modua izan dezake. Hiru txanda egin ditugu, eta egunero lau pertsona joaten gara lanera.

Baina lan handirik ez dago", argitu du Lizarragak.

Lizarragak esan duenez, "enpresak merkatu handia zuen. Kanpoan lan asko egiten dugu. Eraikuntza enpresendako lan egin dugu, esaterako, Adania enpresa handia da. Urtean bospasei obra bazituen 600 bat etxebizitza ziren". Horretaz aparte, enpresan etxeen zaharberritzerako leihoak egiten dituzte, eta muntatzaile autonomoek jartzen dituzte. "Hortik ere lan karga dezente sartzen zen", azaldu du Lizarragak.

Enpresak Iruñeko Erriberri kalean denda zuen. Urte bat da itxita dagoela. "Handik lan asko sartzen zen", gaineratu du langileak. Gainera, Sakanako erakuntza enpresa txikiak haiei ematen diete lana. "Lan karga dezente zegoen", laburbildu du langileen ordezkariak.

Langileen iritziz, enpresa hartzekodunen konkurtsora iritsi da "kudeaketa oso txarra izan da, utzikeria izan da dena eta, azkenean, ihes egin die". Azaldu duenez, "antza, pandemia garaian lana jaitzi zen. Antza, maileguak eskatu zituzten. Izugarritzko zorra pilatu dute eta horren zama omen zuten orain. Baina guk ez dugu azalpen hori sinesten. Ondoren izugarritzko lan pila sartzen hasi zen, eta ez gara gelditu. Baina honetara iritsita, langileak ari gara 'ordaintzen'".

Epaitegiko administratzaileak lantegia ixteko beste aukerarik ez du ikusten. "Enpresa erosteko ez dago jenderik. Esaten du zorra handia dela eta horrekin ezin dela aurrera egin. Egoera horrekin zein sartuko da?" laburbildu du Lizarragak. Langileek kooperatiba egiteko aukera baztertu dute. "Plantilla zaharra gara: Bik errelebo kontratua dute, hiruk 60 urte, beste hiru 57-58 urte dituzte eta gazteagoak diren bi daude. Adin horrekin jendea kooperatiba batean edo zerbaite muntatzea, ez dute zailtasunik nahi. Aparte, zorra". Langileen ordezkariak gaineratu duenez, "pena da. Sakanan lanpostu pila kentzen ari dira eta lan egin zezakeen enpresa bat da, oso ongi egon zaitezkeena lanean. Nik 21 urte egin ditut".

Egoera

Langileek ez dute azaroz geroztik kobratu. Ez dituzte jaso hiru

nomina eta estraren zati bateko diruak. Ezta lan hitzarmeneko atzerapenak ere. "Egoera oso larria da. Batek emaztea Sun-sundeguin du, beste batzuek hipotekak, familiaren mantentzea... Oso zaila da egoera", azpimarratu du Lizarragak. Langile bakoitzak jaso ez dituztenak 8.000 euro dira. Baina errelebo kontratua dutenen kasuan 3.000 euro pasatxo izanen dira. Eta bizitzeko "ahal dugun moduan ari gara dirua kudeatzen: familiarri eskatuz... oso larri gabiltza".

Hartzekodunen konkurtoa bukatu arte langileek ez dute ordainketarik jasoko. Beraien aurreikuspenen arabera langabezia kobratzen maitatzean hasiko lirarteke. Konkurtsoko administratzailearekin harremanetan daude, "eta hor ez dago ezer egiterik. Pabiloiak, makinak eta beste saldu nahi dituzte. Ez dakit zein postutan egonen garen kobratzeko".

"Adinagatik ez dute uste beste enpresaren batean kontratatu dituztenik". Plantillako askok dagoeneko jubilazioa buruan zuten. Abokatuekin dituzten aukerak ere aztertzen ari dira. "Pena da. Ilbeltzean, agorrilean eta irailean errelebo kontratuan sartzekoak ginen hiru langile. Horrekin hiru urte edo hiru urte eta erdi egin, eta gero jubilatu. Ez gara ailegatu". Bitartean langileek lanpostuen defentsan mobilizatzen segitzeko asmoa dutela jakinarazi du. "Sakanaren etorkizunaren ikusmira horretatik. Hemen ixten den fabrika ez da zabaltzen. Eta gazteak kanpora joan behar izaten dute. Sakanan bertan lana badago, hobe!" Azkenik, babesa eman dien jende guztia-ri eskerrak eman dizkiete Ego-kiko langileek.

ARRUAZUKO UDALA

ARRUAZUKO OSTATUA

ERRENTAN EMATEKO IRAGARKIA

Baldintzen plegua: Uharte Arakilgo udaletxean interesdunen eskura dago, baita kontratazio-atarian ere.

Proposamenak aurkezteko tokia eta epea:
Uharte Arakilgo udaletxean,
2025eko otsailaren 6ko 14:00ak baino lehen.

Uharte Arakilen, elektronikoki sinatzen den egunean.
Gorka Ovejero Ganboa,
Arruazuko udaleko Aikate-Udalburua

AYUNTAMIENTO DE ARRUAZU
ARRUAZUKO UDALA

Desfibrilagailua du Uhartek

Uharte Arakilgo Udalak jakinarazi duenez, mediku kontsultategiaren sarreran desfibriladorea jarri du. Udalak gaztigatu duenez, "pertsonen bizitza tresna horren erabilera eta mantentze egokiaren esku egon daiteke", beraz, udalak desfibriladorea "errespetatzeko" deialdia egin du. Izan ere, halako makinak pertsona bati bihotza gelditzen zaionean erabiltzen dira.



Garalurrek 17 enpresa sortzen lagundu zuen

Ekintzailtzari laguntzeko eskaintzen dituen zerbitzuaren bidez egin zuen

SAKANA

Cederna Garalur elkarteak 32 ekintzaileri lagundu zien joan zen urtean. Haietatik hemeretzi (% 59,37) emakumezkoak ziren eta hamahiru (% 40,63) gizonezkoak. Ekintzaileri emandako laguntza horren ondorioz Sakanan hamazazpi enpresa sortu ziren joan zen urtean. Eta, ondorioz, hemezortzi pertsonak langile autonomo gisa alta eman zuten ibarrean. Nezio berrien forma juridikoari dagokionez, guztiak banako enpresari eta sozietate irregular gisa eratu ziren.

Elkarteak horretaz aparte ekintzailtzari sustatzeko beste zerbitzu batzuk eskaini zituen Sakanan. Hala, urtean zehar, Garalurren Sakanako Ekintzailtzari Laguntzeko Zerbitzura jo zuten bi urtetik beherako antzinatasuna duten dozena bat enpresa eta bi urtetik gorako antzinatasuna duten hamabi enpresa. Bestetik, Cederna Garalur eskualdeko ekintzailtzari esperientziak zabaltzen eta dinamizatzen lagundu zuen, eta ekintzailtzarekin lotutako hainbat ekitalditan parte hartu zuen, beste erakunde batzuek sustatutakoak, esaterako Nafarroako Enplegu Zerbitzuak.

Gainera, zazpi tutorial eman zituen ekintzaileri eta autonomoei zuzenduta, kolektibo horiendako interesgarriak ziren gaiei ingurukoak, esate baterako: *Antolatu zure paperak Ogasuna betetzeko* eta *Nola egin zure izapideak online Ogasunarekin ziurtagiri digitalarekin eta fakturen diseinuarekin*. Garalurren ekintzailtzari laguntzeko zerbitzua eskaintzen du Navarra Emprendue Sareko bazkide gisa, eta sare Nafar Lansarek kofinantzatu du.

Garalurrekin harremanetan jartzeko 639 900 336 (Susana) edo 619 328 264 (Oskia) telefonoetara hots egin daiteke.

Arakil bere garraio publikoa sortu nahian

Nafarroako Gobernuak NBus markaren bidez eskaintzen duena ez ditu inolaz ere ibarreko premiak betetzen. Horregatik udala Arakilerako baliagarria izanen den garraio zerbitzua sortzeko prozesuan dago. Herriz herri aurkezpenak egingen ditu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Dozena bat herrik osatzen dute Arakilgo udalerria. Baina hamabitik zortzitan ez da autobusik gelditzen. "Ez dugu garraio publikoko zerbitzurik", laburbildu Oihana Olaberria Jaka alkateak. Arakildarren kezak Nafarroako Gobernura eramanez izan ditu askotan Arakilgo Udalak. Alferrik. Lortu duten bakarra da eskaera bidez funtzionatzen duen garraioa egunez aldatzea da. "Gobernua enpresarekin hitz egiten ari da orain, aldaketa egiteko", argitu du alkateak. Gaur egun eskaera bidezko zerbitzua astelehen asteazken eta larunbatetan dago. Aldaketarekin astearte, ostegun eta ostiraletan izanen litzateke. "Asteartetan, Irurtzunen azoka dagoelako. Ostegunetan Irurtzongo osasun etxean odola ateratzeko eguna delako. Bi egun horietan goizez eskainiko litzateke zerbitzua. Eta ostiraletan arratsalde, gazteek Irurtzongo gaztetxokora edo liburutegira ikastera joan ahal izateko". Olaberriak argitu duenez, "Nafarroako Gobernuak ez digute ezer gehiago emanen. Hemengo garraio publikoa emateko garaian sei bidaia eskaini zituzten Arakilerako, eta gobernua ez da hortik mugituko. Bakarrik egunak aldatzea".



Etxarrendarra errepidea gurutzatzen, markesinarantz. ARTXIBOA

Hori erabat eskasa dela iritziz, Arakilgo Udalak "arakildar zaugarrienak" gogoan, garraio zerbitzu bat antolatzen hasi da eta, gauzak ongi, apirilean martxan nahi luke. "Helburua da behar duten arakildarrak goizetan medikura, erosketak egitera, ile apaindegira edo dena delakora eramatea. Arratsaldeetan, berriz, eskaintza zehatzagoa litzateke: udalak antolatutako ikastaroetan aritzeko, Irurtzongo edo Uharteko Arakilgo jubilatutako elkartetara edo Irurtzongo liburutegira ikastera joateko li-

tzateke", argitu du Olaberria. Alkateak gaineratu duenez, "Irurtzun aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin ere koordinatzen ari gara, haiek identifikatu ditzaten zer pertsonak beharko luketen zerbitzua, eta zein premia litzateken".

Boluntarioak

Alkateak argi utzi du udalak koordinatutako eskaera bidezko garraio zerbitzu bat izanen dela. Baina hura gauzatuko dutenak boluntarioak izanen dira. "Gure

asmoa da partekatutako auto elektrikoaren KarKarCar koope- ratibarekin hitzarmena sinatzea eta urte baterako auto elektriko bat hartzea. Aplikazio moduko bat ere izanen dugu eskaerak jasotzeko. Udalak koordinatuko du eskaera bidezko garraioa, baina autoa gidatu, boluntarioek egingen lukete. Gure nahia da gutxiengo boluntario talde bat izatea da, hala goizero eta arratsaldero pertsona bat autoa gidatzeko prest egon dadin eta jendea lan gehiegirekin ez kargatzeko".

Egitasmoaren berri emateko eta boluntarioak egitasmoa batzeko, bilera deitu zuten ilbeltzaren 22an. "Jende gutxi agertu zen. Baina aparte, jendea parte hartzeko prest dagoela esan digu", azaldu du Olaberria. "Gainera, pandemia garaiko boluntario taldearen esperientzia dugu. Orduan oso ongi funtzionatu zuen. Eta orain ere aterako" dela uste dute udalean. Alkateak ere aurreratu du boluntarioen elkartea bat sortzea izanen litzatekeela asmoa, hura Nafarroako Gobernuaren zerrenda izena ematea eta bide horretatik egitasmoa aseguruia ziurtatzea. "Tbar guztiaren auzolana litzateke", esan du alkateak. Horregatik, hamabi herrietan eskaerapeko garraio zerbitzuaren aurkezpenak egingen ditu aurki Arakilgo Udalak. Garraioa eta zaintza uzartzen dituen Arakilgo egitasmo horrek Uharteko Arakilgo Udalen interesa ere piztu du.

Bitartean, bestelakoak ere lotzen hasia da Arakilgo Udala. Izan ere, ibar guztian, oraingoan, ez dago auto elektrikoak kargatzeko gunerik. Badirudi Uharteko Arakilgo enpresa batek berea erabiltzeko aukera emanen liokeela.

PORTUKO
okidemia

Altsasu: 948 563 822 (denda) | 948 467 153 (lantegia)
Etxarri Aranatz: 948 460 988

EGURDIAIN
sutarako egurra

608 57 03 57
etxea berotzeko ezinbestekoa

Txalaparta
TABERNA

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU



KOLABORAZIOA

ASUN BERASTEGI GARTZIANDIA

Natura 2000 sarea

Natura 2000 Sarea gune babestuen sare ekologikoa da, Europako espezie eta habitat baliotsuenen biziraupena bermatzeko sortua. Bi zuzentarautan oinarritzen da, Habitaten Zuzentaraua (92/43/CEE Zuzentaraua) eta Hegaztien Zuzentaraua (2009/147/CE). Bi horiek, gaur egun oraindik ere, Europan biodibertsitatea eta naturaren kontserbazioaren arloko Zuzentarau nagusiak dira.

Espezie baliotsuenen Europako zerrendetan dauden eta Sakana inguruan ikus daitezkeen animalia espezieen artean daude ugatza, sai zuria, okil beltza edo basa katua.

Landare espezieen artean lilipak edo nartzisoak dira azpimarragarrienak. Gutxienez hiru espezie aurki daitezke Sakanan; latinezko izenak erabiliz, hurrengoak: *Narcissus asturiensis*, *Narcissus varduliensis* (*N. pseudonarcissus*) eta *Narcissus bulbocodium*. Martxo aldera hasiko dira loratzen Sakana inguruko larre eta basoetan.

Eremuak

Habitat Zuzentaraua irizpideak jarraituz, Nafarroan **42 Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE)** daude. Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzeko, lehenik Garrantzia Komunitarioko Tokien zerrendetan proposatu behar izan ziren; ondoren,

Kudeaketa Planak onartu zirenean, Kontserbazio Bereziko Eremuak izatera igaro ziren.

Bestalde, Hegaztien Zuzentarauaren bidez **17 Hegaztien Babes Bereziko Eremu (HBBE)** izendatu dira. Jakin behar da 17 HBBE hauek, Etxauriko Haitzak izan ezik, hein handi batean lurraldea konpartitzen dutela Kontserbazio Bereziko Eremuekin (gainjartzen dira), horregatik, zenbait tokitan Nafarroako Natura 2000 Sarean 43 babesgune daudela irakurri daiteke (42 gehi Etxauriko Haitzak).

Sakana inguruan Natura 2000 Sareko bi eremu dira azpimarragarrienak: **Aralar mendilerroa** eta **Urbasa eta Andia**. Eremu zabalak dira bai bata, bai bestea eta oso habitat eta espezie garrantzitsuak gordetzen dituzte. Gertukoak diren beste hainbat babesgune badira: Lokiz mendilerroa, Ultzama eta Basaburuko Hariztiak edo Belate.

Habitat babestuen zerrendari dagokionez, bertan basoak, sastrakadiak, larre eta belardiak, hezeguneak eta harkaitzetako hainbat habitat daude, beste batzuen artean. Hain zuzen ere, 1992. urtean, Habitaten Zuzentaraua argitaratu zenean, hori izan zen Zuzentarau horren ezaugarri berritzaileenetariko bat. Ordura arte espezie

mehatxatuen edo zaurgarrien zerrendak baziren eta eremu babestuak ere bai, baina mehatxatutako habitatak izendatzen zituen zerrendarik ez zegoen.

Sakanako mendietan beha daitezkeen habitaten artean azpimarragarriak dira hurrengoak: Malloetako harkaitzetako habitatak, Satrustegi-Beriain-Andia-Urbasa mendilerroko harkaitzetako habitatak, Putterriko hagin basoa, Aralar eta Urbasa-Andia-ko goimendiko larre eta txilardegiak, Urbasako rasoko hezegunea, pagadiak edo hariztiak.

Onurak

Natura 2000 Sarea zertan datzan azaldu ondoren, garrantzia du dakartzan onurak ebaluatzeak. Horretarako **zerbitzu ekosistemikoen kontzeptuari** heldu ahal zaio. Kontzeptu hori lehenengo aldiz: *Millennium Ecosystem Assessment, 2005. Ecosystems and Human Well-being* (2005 urtekoa); gurera ekarrita: **Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa, 2005. Ekosistemak eta giza ongizatea**. Lanaren izenburua bera bada adierazgarria: alde batetik, argitalpenak duen helburuetako bat ekosistemen ebaluazioa orokorra egitea da eta, bestetik, ekosistemek giza ongizatean duten garrantzia nabarmentzeko zerbitzu ekosistemikoen kontzeptua lantzen du.

Zerbitzu ekosistemikoak hiru multzo nagusitan sailkatu daitezke: hornidura, kultura eta



Andiako larre eta txilardegiak. ASUN BERASTEGI GARTZIANDIA



Lilipak edo nartzisoak Aralarreko pagadietan. ASUN BERASTEGI GARTZIANDIA

erregulazioa. Haiei laugarren bat gehitu ahal zaie, oinarritzko zerbitzu ekosistemikoak biltzen dituen. **Hornidurazkoak** naturatik zuzenean jasotzen diren elementuak dira (onura zuzena dute gizakiendako): ura, elikagaiak (arrantza, zizak, ezkurak, abereendako bazka, sendabelarrak...), egurra, zelulosa, baliabide genetikoak, medikamentuak etab. **Kulturalak**, aisialdia eta turismoa, ingurumen hezkuntza, jakinduria eta ikerketa, arte inspirazioa eta identitatea bezalako zerbitzuak jasotzen ditu. **Erregulazioko zerbitzuak** dira klimaren erregulazioa, airearen kalitatea, uraren depurazioa, polinizazioa (beharrezkoa elikagaiak sortzeko) edo izurrien kontrola. Oinarritzko zerbitzu ekosistemikoen multzoan ekosistemetan gertatzen diren prozesu ekologiko orokorrak daude: uraren zikloa, elikagaien zikloa, kate trofikoak, biodibertsitatea, etab. Zenbait lurraldetan zerbitzu ekosistemikoen balioa kalkulatzeko ariketa egin dute: bildutako zizen kopurua (kg),

ur edangarria (l), etab., nahiz eta zenbait kasutan erraza ez izan. Dena dela, zerbitzu ekosistemikoak identifikatzea eta balio kualitatiboa ematea baino lortu ez arren, hausnarketarako bidea ireki dezake eta eztabaidarako argudioak eskaini ere bai. Ekosistemak osasungarri daudenean zerbitzu ekosistemikoak bere osotasunean eskaintzeko gaitasuna izango dute. Aldiz, ekosistemak hondatzen badira edo modu ez jasangarrian kudeatzen badira, eragina izanen da zerbitzu ekosistemikoetan eta bide batez, epe motzera edo luzera bada ere, gizakiarengan ere bai.

Erreferentziak

- Millennium Ecosystem Assessment, 2005. Ecosystems and Human Well-being: Synthesis. Island Press, Washington, DC.
- Natura 2000 Sarea: <https://natura2000.eea.europa.eu/>
- Natura 2000 Sarea Nafarroan: <https://espaciosnaturales.navarra.es/es/>

DUELA 25 URTE...



Matias Salazar saritua

Euskal Mendizale Federazioak Etxarri Aranatzen ospatu zuen bere laugarren festa eta urteroko sariak banatu zituen. Mendizale-tasunaren sustapenean eta hedapenean lagundu zuten pertsoneri saria eman zieten. Haien artean zen Matias Salazar argazkilaria altsasuarra, euskal mendizaleek antolatzen zituzten ekitaldi guztietan parte hartzen zuena. Ekitaldian Etxarri Aranazko abesbatzak parte hartu zuen.

Orekan kontziliazio programak segida izanen du

Olatzagutiko Udalak Orekan kontziliazio programa eskaini zuen estreinakoz Gabonetan. Udalak azaldu zuenez, eskaintza berriaren helburua da "gurasoei edo tutoreei erraztasunak ematea beraian lan erantzukizunak bete ahal izateko, beti ere seme-alaben zaintza eta ongizatea alde batera utzi gabe". Horretarako, udalak "adingabeen garapen integrala sustatzen duten jarduera eta espazio seguruak" eskainiko ditu Akelarre Ludotekan.

Kontziliazio programaren estreinako erabiltzaileak 2012. eta 2020. urteen artean jaiotako sei neska-mutil izan dira. Akelarre ludoteka izan ziren abenduaren 23, 24, 26, 27, 30 eta 31n eta ilbeltzaren 2, 3 eta 7an, goizez. Udalak programaren esperientziaren balorazio oso ona egin du eta, dagoeneko, Aste Santuko eskaintza prestatzen hasi da. Oreka programa apirilaren 22tik 25era, asteartetik ostiralera eskainiko du.

Urdaingo Teileriako zabala bigarrenez garbituta

Urdaingo Basoegala eta Teileriako zabala dermioak hariztia dira. Hura sasiz bete zelako, udalak sasien arraseko garbiketa egin zuen apirilean. Sasiak berriro hazi zirela, bigarren garbiketa egin zuen abenduan. Garbiketa horien helburua da handik pasatzen den jendeari bidea erraztea eta aziendarendako bazkatokia sortzea.

Udaberrirako erabilgarri izanen da frontoi txikia

Ostiralean hasitako lanak otsailean despedituko dira. Ondoren horma-irudia margotuko da frontisaren atzeko aldean eta pilotarekin erlazionatutako bertsoa jarriko da ezker paretan

Alfredo Alvaro Igoa ALTSASU

Langileak frontoi txikia jasotzeko lanak ostiralean hasi zituzten. "Lanak martxa onean doaz eta otsailean bukatuko dira", azaldu du Javier Ollo Martinez alkateak. Kirol azpiegitura berriak sei metro zabalako frontisa eta zortzi metroko luzera duen ezker paretan izanen ditu. Frontisak eta ezker paretaren hasierak bost metroko altuera izanen du, baina ezker paretaren akaberan lau metrokoa izanen da altueran. Porlanezko 40 cm-ko zabalera izanen ditu frontoiak eta berde kolorekoa izanen da. Estalpetik pixka bat urruntzeko berdegunearen zati bat (10 m²) hartuko du frontoiak.

Lanak Xcava obras y servicios SM enpresa egiten ari da, eta 94.907,56 euro (BEZ barne) euro jasoko ditu. Obra finantzatzeko udalak Nafarroako Gobernuaren Toki Azpiegitura Planeko 58.000 euroko dirulaguntza izan du. Obra bukatutakoan, Foru plazan zegoen frontoian jokatutako pilota partida bateko une bat margotuko du Iker Uribe. Eta kantzako ezker paretan, berriz, Joxe Luis Gorrotxategiren bertso bat jarriko da, haur bat pilotan ikustearen edertasunari buruz ari den bertsoa.



Frontoi txikia egiteko lanak aurrera doaz.

Jatorria

Altsasuko pilotazaleek, kirol talde eta elkarteek eta partikularrek Altsasuko udalari pilota jokoa sustatzeko eskabidea egin zioten 2017ko azaroan. Eskaera 862 sinaduren babesarekin egin zuten. Frontoiak itxita zeudenez, neska-mutikoengan pilota zaletasuna sustatzeko, sinatzaileek Altsasuko Udalari eskatu zioten frontoi txikiak egiteko, edo, bestela, frontball paretan edo kantzak jar zitzala.

Eskaera kontuan hartu zuen udalak eta, nabarmendu duenez,

"kokapena zehaztea ez da erraza izan". Herriko hainbat kokaleku aztertu zituzten, baina erdigunean ez zeudelako, trafikoko zirkulaziotik hurbil zeudelako edo bestelako arrazoiengatik baztertu egin zituzten.


Kontrako ahotsak

Kokapen hobeak egon zitezkeela adierazi zuen EH Bilduk bere garaian. Koaliziotik adierazi zuten, "jende asko ibiltzen den eremu batean frontoiak hesi bat sortuko du". Eraikuntzaren "in-paktu bisual negatiboa" ere ai-

patu zuen. Frontoiaren eta lokomotoraren artean sortuko den "puntu itsu eta estuaz" gaztigatu zuen.

Eta lanak hastearekin batera, herritar talde batek lanak geldiarazteko eskatuz bi pauso eman zituen. Astelehenean udaletxean idatzia aurkeztu zuen. Lanak gelditzearekin batera, "pilotazaletasuna sustatu nahi bada, Burunda frontoia zabaltzea" eskatu zuten. Gogoratu dute udalarena zen Zelandiko frontoia ere itxita dagoela. "Beste frontoi bat behar izanez gero, paretak batekin nahikoa litzateke, eta azpiegituraz hain beteta ez dagoen espazio batean hobeki legoke". Azkenik, udalari "premiatzeko" bilera eskatu zioten, "gaiari konponbidea emateko. Mila pertsona gara udalaren arrazoirik gabeko jarduerekin nahasiak gaudenak"

Bestetik, estalpean bilkura eta batzarra egin zuten asteartean. 50 bat altsasuar elkartu ziren eta hainbatek hartu zuten hitza. Bildutakoan iritziz, "urbanistikoki erokeria bat da frontoi txikia egitea. Trastetegi antza hartzen ari da. Eta, praktikoki, zentzugabea". Kultur gunea egiterakoan sortutako urbanizazio zabalean "bururatzeko zaizkien gauza guztiak sartzen" dituztela salatu zuten. Ondean Burunda frontoia izanda, "pilota zaletasuna sustatzeko" hura zabaltzea eskatu zuten. Kexu ziren udal erabakietan herritarrek parte hartzeko aukerarik ez izateagatik. Bestetik, pozik zeuden deialdiak izandako erantzunagatik eta jendearen parte hartzeagatik. "Altsasun herriari buruz hitz egiteko, herria zaintzeko eta herria hobetzeko talde bat" sortzeko nahia azaldu zuten.



ZUREN 1964 GEROZIK

Amaya


OKINDEGIA

🍞 | 🥯

<p>ALTSASU 678 323 403 Irutia Hiribidea, 48 948 468 026 Zumalakarregi Plaza, 3 670 389 017 San Juan Kalea, 50 948 562 185 Oitadiko Kristo Deuna, 19</p>	<p>VITORIA-GASTEIZ Postas, 33 ETXARRI ARANATZ 948 461 660 Kale Nagusia, 4 ARAIA 945 314 572 Andoni Urrestaraza, 3</p>
<p>UHARTE ARAKIL 691 83 41 36 Mandikoa, 3</p>	<p>IRUN 655 409 708 Zubiaurre, 4</p>

Langabeziaren garapena Sakanan

Guztira Gizonezkoak Emakumezkoak



eta olaztiarrak %7,90. Gainontze-ko udalerrietan langabezia ibarrekoaren %5 baino txikiagoa da.

Adina

Lan bila dabiltzan sakandarren %53,72 (476) 45 urte baino gehiago dituzte. Hurrengo adin mul-zoa 25 eta 45 urte arteko langabeena da: %37,81 (335). Azkenik, ibarrean 25 urte baino gutxiago dituzten kopurua %8,47 (75) da. Generoari erreparatuta, adin tarte tietan emakumezkoak gizonezkoak baino gehiago dira. Hamahiru gazte gehiago (%20,97) daude lan bila. 25 eta 45 urte arteko langabeen kopurua 28 pertsonatan igo da (%9,12) eta, azkenik, 45 urtetik gorako 29 langabe gehiago daude (%6,49).

Langabezia Nafarroan

2024ko abendu akaberran herrialdean 30.355 langabe zeuden, aurreko urtean baino %1,2 gehiago. Generoaren arabera, 18.433 (%60,72) emakumezko eta 11.922 (%39,27) gizonezko nafar zeuden lanik gabe. Emakumezkoen artean, langabezia %2,3 igo zen 2024an, eta gizonezkoen artean, berriz, %04 jaitsi zen aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Adinaren arabera Nafarroan langabezia gora egin zuen adin talde guztietan. Sakanan nafarren %3,05 bizi gara, baina herrialdeko langabeen %2,91 gara.

Ibarreko kontratazioa

Sakanan 5.532 kontratu sinatu ziren joan zen urtean. Haietatik gehienak, 2.943 (%53,20), emakumezkoen sinadura dute. Gainontzeko 2.589 (%46,80) kontratuak gizonezkoak sinatutakoak dira.

Hasteko, 70 langabe gehiago

Langabezia %8,58 igo zen; gizonezkoena %7,45 igo zen eta emakumezkoena %9,31. Hamar langabetuetatik sei emakumezkoak dira. Emakumezkoak izan ziren kontratu gehien sinatu zituztenak: %53,20

lune Trecet eta Alfredo Alvaro

SAKANA
Joan zen urtea 886 langaberekin despeditu genuen, aurreko urtean baino 70 pertsona gehiago zeuden lana bilatzeko izena


emanda. Langabetuetatik emakumezkoak 540 (%60,95) dira eta gizonezkoak 346 (%39,05). Enplegu bulegoei erreparatuta, Altsasukoak urtea 752 langabeekin bukatu zuen, aurreko

urtean baino 49 pertsona gehiago. Gainontzeko 21 langabeak Arakilgo aldeko zenbait herrietakoak dira, Iruñeko Zabalguneko enplegu bulegoan izena emanda daudenak.


2023ko abenduaren 31rekin alderatuta, 2024ko egun berean Sakanako lau udalerritan jaitsi zen Arakil (sei langabe gutxiago, %15eko jaitsiera), Arruazu (2 eta %50), Ergoiena (1 eta %14,29) eta Iturmendi (1 eta %4,76). Gainontzeko hamaika udalerritan langabezia gora egin zuen joan zen urtean: Altsasu (22 eta %5,73 gehiago), Irurtzun (21 eta %18,58), Olatzagutia (14 eta %25), Uharte Arakil (6 eta %25), Lakuntza (6 eta %15,76), Etxarri Aranatz (6 eta 8,45). Ibarreko gainontzeko bost udalerrietan langabe bat gehiago izan dute urte akaberan: Irañeta (%100), Arbizu (%3,85), Bakaiku (%12,50), Urdiain (%5,88) eta Ziordia (%16,67).

Langabeen %45,82 altsasuarrak dira. Bi digituko langabezia duen beste herria Irurtzun da, %15,12. Etxarriarrak dira langabeen %8,69


Langabezia generoaren arabera




Langabezia adinaren arabera



Sakanako biztanleriaren bilakaera 2023-2024



Kontratuak mota eta generoaren arabera




Sei kontratu mota daude eta horietan erabiliena epe jakin baterako egindako aldi baterako kontratua da. Halako 4.446 (%80,37) hitzarmen sinatu ziren joan den urtean ibarrean. Ohiko mugagabe kontratuak 691 (%12,49) izan ziren. Eta mugagabe bihurtutakoak, berriz, 265 (%4,79). Hurrengo hiru kontratu motak oso gutxi sinatu ziren Sakanan: aldizkako kontratu finitxo mugagabeak 82 (%1,48) izan ziren, praktiketarako aldi baterako kontratuak 27 (%0,49) eta prestakuntzarako aldi baterako kontratuak 21 (%0,38).

Sei kontratu mota daude eta horietan erabiliena epe jakin baterako egindako aldi baterako kontratua da. Halako 4.446 (%80,37) hitzarmen sinatu ziren joan den urtean ibarrean. Ohiko mugagabe kontratuak 691 (%12,49) izan ziren. Eta mugagabe bihurtutakoak, berriz, 265 (%4,79). Hurrengo hiru kontratu motak oso gutxi sinatu ziren Sakanan: aldizkako kontratu finitxo mugagabeak 82 (%1,48) izan ziren, praktiketarako aldi baterako kontratuak 27 (%0,49) eta prestakuntzarako aldi baterako kontratuak 21 (%0,38).

Generoa eta kontratu mota aldagaiak gurutzatuz gero, ikusten da kontratu mota guztietan gizonezkoek kontratu pixka batzuk gehiago sinatu zituztela. Salbuespena kontratu gehien ziren mota da: epe jakineko aldi baterako kontratua. Emakumezkoek halako 2.484 kontratu sinatu zituzten eta gizonezkoek 1.962. Hau da, emakumezkoek mota horretako 522 (8,62 puntuko alde) kontratu gehiago sinatu zituzten. Hain zuzen ere, hor hausten da generoen arteko oreka. Generoen arteko beste bereizgarri bat prestakuntza eta praktiketarako aldi baterako kontratuak dago. Gizonezkoen artean 18 eta 24 izan ziren, emakumezkoen artean hiruna.

Kontratuak sektorearen arabera



Eguerre
 KALITATEZKO EGURRA eta PELLETA
ETXEKO ATERAINO
 662 11 77 45

FLORES
 Utzubar industrialdea Arbizu
 948 460 499
 Nafarroako berezko txistorra

JUANLUZENA SAGARROTEGIA
ODERITZ
 948 604 571 | 680 652 183

Izan giltzarri!



Joxe Aldasoro Jauregi Joxek Farra bakarrizketalaria

Egun on,
Joxe naiz, Joxek Farra
BAKARRIZKETA: *guaixe.eus*-en ikusteko
Izen zettez giltzarriye!
Izan zaitetz giltzarria!
Leittukuezu Guaixe gustora. Probatu!



[guaixe.eus/
kideak](https://guaixe.eus/kideak)



SANTA AGEDA KORUAK

IRURTZUN

OTSAILAK 4 Asteartea

18:00 Santa Ageda Korua, Aizpeak antolatuta, Foru plazan.

IRAÑETA

OTSAILAK 4 Asteartea

18:00 Santa Ageda koplak abestera aterako dira.



ARTXIBOA

LAKUNTZA

OTSAILAK 4 Asteartea

17:00 Lakuntzako eskolako eta ikastolako haurrak Santa Ageda koplak abesten eta eskean herriari buelta emanen diote, plazatik abiatuta. Herriarrek emandako jaki eta diruarekin gurasoek eta

boluntarioek merendua eginen dute, kultur etxean.

19:00 Lakuntzako abesbatzak Santa Ageda koplak kalez kale kantatuko ditu, plazatik abiatuta. Herriarrek emandakoarekin afaria eginen dute, Lakuntzako Pertzan.



ARTXIBOA

LIZARRAGABENGOA

OTSAILAK 4 Asteartea

19:30 Santa Ageda koplak kantatzera aterako dira, plazatik



ARTXIBOA

ETXARRI ARANATZ

OTSAILAK 4 Asteartea

18:00 Musika eskolako ikasleek Santa Ageda kalejira eginen dute, musika eskolatik abiatuta. Ondoren, txokolate jana, plazan. Etxarri Kantuz eta Abesbatza ere aterako dira.



ARTXIBOA

ALTSASU

OTSAILAK 4 Asteartea

13:00 Altsasuko Musika eta Dantza Eskolako fanfarreak eta koruak Santa Ageda kalejira eginen dute, musika eta dantza eskolatik.

13:00 Iñigo Aritza ikastolako ikasleek Santa Ageda koplak kantatuko dituzte, Foru plazan. 19:00 Lagun Onak elkarteak

Santa Ageda koplak kantatuko dituzte, Lagun Onak elkartetik abiatuta. Zubeztia plaza, Gartzia Ximenez eta Zelai kaleko bidegurutzera, Zumalakarregi plazara eta Iortia zabalgunean geldiduneak egin ondoren, Foru plazan amaituko dute. 19:30 Kukuerreka Kantuz taldea Santa Ageda koplak kantatzera aterako da, Kukuerreka elkartetik abiatuta. Zumalakarregi plaza eta Iortia zabalgunean geldiduneak egin ondoren, Foru plazan amaituko dute.



ARTXIBOA

IHOTEAK

IRAÑETA

OTSAILAK 1 larunbata

10:00 Hamaiketakoa.
13:00 Ezkongabeei ezpelak jarri.
14:00 Haurren bazkaria.
14:30 Herri bazkaria.
18:00 Antxon Zakuarekin kalejira.



ARTXIBOA



OTSAILAK 3-7

10:00 Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

10:15 Pentsaren azalak

10:20 Albisteak eta kirolak

10:30 Hizketan

11:05 Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin

14:00 Errepikapena

Hizketan

Otsailak 3 Egoki enpresako langileen adierazpenak eta NYeko munduak

Otsailak 4 Julen Herrero Beramendi kinto ospakizunez

Otsailak 5 Bertso saioa (Bertsoa.eus)

Otsailak 6 Ana Goitia Katana bakarriketaz

Otsailak 7 Agenda berezia

BURUNDAKO KINTOAK

Santa Ageda egunarekin kintoak kalera

Goizean goiz abiatuko dira Altsasuko eta Olatziko kintoak otsailaren 5ean, asteazkenean, diru eske. 2006an jaiotako gazteak dira kintoak; hortaz, aurten 19 urte betetzen dituztenak.

Altsasun 57 kinto dira, 29 emakumezko eta 28 gizonezko. 8:30ak inguru Olaia Macia Mendia, Ainhoa Calvo Fuentesenea, Kepa Amillano Santano eta Gorka Diaz Diego kintoen buruzagiak eta boteroak plazan elkartuko dira, txistulariak lagunduta udaletxera joateko. Bertan, Javier Ollo Martinez alkateak herriko makila emanen die, eta orduan hasiko dira ospakizunak herrian. Dena dela, lehenagotik ere kintoak herriko bazterretan diru eskean ariko dira.

Herriko mandoa hartu ondoren, buruzagiek haiek apaindutako lehenengo opilak jasoko dituzte, eta horrela eginen dute goizean zehar; herriko txoko desberdinetan; kintoen opilak jasotzen eta saltzen joanen dira. Berandu joanen dira bazkaltzera, eta 19:00ak aldera Foru plazara joanen dira lehenengo zortzikoak dantzatzera. Otsailaren 9ra arte, egunero eta banan banan, kintoen zortzikoak izanen dira plazan.

Santa Ageda eguna egun berezia da duela 25 urte kintoak izan zirendako, baita 60 eta 70 urte betetzen dituzten pertsonendako ere. Egundon honetan bazkarira elkartzen dira, eta ondoren zortzikoak ere dantzatzen dute plazan. Gure Etxean 25 urteurrena egiten dutenen argazki erakusketa izanen da ere kinto ospakizunak irau bitartean. Haiek izan ziren lehenengo emakume buruzagia izaten lehenengoak.

Olatzagutia

Aurten hamazazpi kinto izanen dira Olatzagutian. Goiztiarrak izanen dira, eta otsailaren 5ean 7:00ak aldera hasiko dira eskean. La Cigarra txarangak lagunduta eginen dute herriko buelta Olatzagutiko kintoek. Hamaiketakoa hartu ondoren, eskean jarraituko dute eta horrela eginen dute ere bazkaldu ondoren. Egunero hamaiketakoan elkartuko dira eta ondoren herriko eskean ariko dira, txarangaren laguntzarekin. Bazkarian bilduko dira ere kintoak.

Ostiralean, otsailaren 7an, hamalau kintok, zazpi bikotetan banatuta, zortzikoak egiteko asmoa dute. Aurreko urtean egin zuten lehenengo aldiz Olatzagutiko kintoek zortzikoak, eta aurten segida izatea nahi dute.

Otsailaren 7ra arte itxoin behar dute Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo kintoek; ostiralean hasi eta igandera arte izanen dira haien ospakizunak. Ziordian kinto gazte bakarra dago.

EMAKUME PREFERENTEA

14. JARDUNALDIKO EMAITZA

Cantolagua - Altsasu 1-5

SAILKAPENA

EMAKUMEEN PREFERENTEA . 1. FASEA

1	Altsasu	35
2	Gazte Berriak	27

HURRENGOA

OTSAILAK 1, LARUNBATA

19:00 Altsasu - Universidad (Dantzaleku)

Altsasu liderra, bidetik ateru gabe

Altsasuk hamaikagarren garaipena lortu du. Bihar Universidad de Navarra hartuko du.

GIZON ERREGIONALA

17. JARDUNALDIKO EMAITZAK

Altsasu - Universidad de Navarra B 5-0

Etxarri Aranatz - Beti Kozkor 1-1

Mendillorri - Lagun Artea 1-4

SAILKAPENA

ERREGIONAL MAILAKO 4. MULTZOA

1	Altsasu	49
3	Etxarri Aranatz	39
6	Lagun Artea	29

HURRENGO JARDUNALDIA

OTSAILAK 1, LARUNBATA

15:45 Etxarri - Lagun Artea (San Donato)

OTSAILAK 2, IGANDEA

15:30 Altsasu - Arga Ibaia (Dantzaleku)

Altsasu, gelditu gabe

Altsasu liderrak hamaseigarren garaipena lortu zuen, eta galtzea zer den jakin gabe jarraitzen du. Etzi sailkapenean hamargarren den Arga Ibaia hartuko du.

Etxarri vs Lagun Artea, derbia jokoan

Etxarri Aranatzek bana berdindu zuen Lekunberriko Beti Kozkorrekin etxean, eta hirugarren postuari eusten dio. Aldiz, Lagun Artea Soto Lezkairutik hiru puntu oso garrantzitsu ekarri zituen, eta seigarren postura igo da. San Donato futbol zelaiak Etxarri Aranatz eta Lagun Artearen arteko derbia hartuko du larunbatean. Lehen postuen arteko lehia borrokatua espero da.

ARETO FUTBOLA

Autonomikoan, Arbizu eta Altsasu buruan

Hirugarren mailako kopan Aralar Mendik eta Beteluk gaur, ostirala, jokatu dute Betelun, 20:30ean. Lehen maila autonomikoan Arbizu eta Altsasu sailkapenaren gorenean daude (34 puntu). Arbizuk Los Sauces hartuko du gaur, 19:30ean, eta Altsasuk bihar, 12:30ean, Ribera de Navarra du aurkari, Tuteran. Emakumezkoen lehen seniorrean Xotak igoera multzoko bigarren jardunaldian Azkarrenaren kontra jokatu du igandean, 11:00etan, Caparrosen.

Emozioa Binakakoan: guztia dago erabakitzen

PILOTA Ezkurdia-Rezusta liderrek lehen bi postuetan jarraitu nahi dute finalerdietara sartzeko; Elordi-Zabaletak lehen bi postuetan sartu nahi dute; eta Etxeberria-Martija play-offetara sartzeko geratzen diren partidak irabaztera derrigortuta daude

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Binakako Pilota Txapelketan hasierako ligaxkako hamabigarren jardunaldia dago jokoan eta txapelketa airean dago.

Ezkurdia-Rezusta jarri dira sailkapeneko lider (9 puntu) larunbatean Labriten ikusgarri aritu eta Jaka-Imazen kontra 22-13 gailendu ondoren. Laso-Iztuetari puntu bat ateratzen die, azken hauek ez baitzituzten Altuna eta Aranguren menpean hartu. Atzetik, zelatan, Elordi-Zabaleta eta Artola-Mariezcurrrena daude, zazpina punturekin. Hain zuzen ere elkarren kontra aritu ziren bi bikoak, baina puntua Baikoek lortu zuten. Jaka-Imazek eta Altuna-Arangurenek launa puntu dituzte.

Behean, Etxeberria-Martijak (2 puntu) txapelketan bizirik jarraitzen dute Peña-Albisuri (3 puntu) 12-22 irabazi eta gero (2 puntu). Play-offetara sailkatzeko lehia bizia dute bi bikoek, eta geratzen diren hiru jardunaldietan garaipena lortzera derrigortuta daude.

Ezkurdia-Rezusta Peña II.a-Albisuri dituzte aurkari ostiralean Oñatin. Peio Etxeberria-Martijak Jaka-Imazen kontra jokatu dute larunbatean Labriten, eta Elordi-Zabaletak Laso-Iztuetaren kontra Idiazabalen.

Altsasu, lehen faseko liderra

FUTBOLA Nesken kadete-infantil mailako lehen fasea asteburuan despidituko da. Hirugarren multzoan Altsasu da liderra eta lehen faseko irabazlea (33 puntu), Mutilberari 5 puntu aterata. Igandean, 11:00etan, Aurrera izango dute aurkari Leitza, eta lehen fasea itxiko dute. Bigarren fasean gainontzeko multzoko talde onenekin batera jokatu dute.



Zabaletak eta Martijak hitzordu oso garrantzitsuak dituzte. MIGUEL OSES

Irurtzun, berriz

Miguel Berazak zuzentzen duen Irurtzun klubak beste txapel bat bildu du 24/25 bildumarako, Haritz Salcedok lortutakoa. Zangozako Lau eta Erdiko Txapelketako finalean, Gurreari (Larraun) 17-22 irabazi zion Salcedok, lehia borrokatuan. Abenduan Nafarroako Binakako lehen eta bigarren mailako finalak irabazi zituzten Arbizu-Igoak eta Salcedo-Lazkozok.



Sakandarrak, Binakakoan primeran.

Urrezko Aizkolariak txapelketa, Etxarri etzi

AIZKORA Goikoetxea, Aristizabal, Erdozia eta Oiarbide, Gazteen Banakakoan arerio

Etxarri Aranatzek Urrezko Aizkolarien txapelketako jardunaldia hartuko du igandean, 12:00etan. Urrezko Binakakoan Txikia IV.a, Rekondo, Mugertza II.a eta Soroa lehiatuko dira. Halaber, Banakako Harrijasotzen Txapelketaren barruan Gorka Etxeberria, gizonezkoetan, eta Udane Ostolaza, emakumezkoetan ariko dira.

Begi gehienak, ordea, 23 urtez azpiko Gazteen Banakako Aizkolari Txapelketari begira egongo dira, bertan lehiatuko baitira aizkolari sakandarrak. Joan Goikoetxea etxarriarrak Amets Aristizabal urdiaindarra izango du aurkari; Jon Erdozia etxarriarra Unai Etxeberria "Osinalde"-ren kontra lehiatuko da, eta Aritz Oiarbide etxarriarra Isidro Velascoren kontra. Beraz, ikusmina handia da.

Binakakoan, ederki

Banakakoa baino lehen 23 urtez azpiko Gazteen Binakako Txapelketa jokatu zen. Final borrokatua abenduaren 31n jokatu zen Asteasun. Pikabea eta Senosiain izan ziren txapeldunak (8:15), Aritz Oiarbide etxarriarraren eta Julen Urrutiaren (8:22) aurretik. Oier Mitxelena altsasuarra eta Aitor Saralegi irurtzundarra (8:22) hirugarren izan ziren.



ALTSASU KIROL ELKARTEA



Iker Mintegi Claver, Valentziako Klasikoan. Bera izan da denboraldia hasi duen lehenetakoa. EUSKALTEL EUSKADI

Aldaketa ugari gure tropelean

TXIRRINDULARITZA Abian da 2025 txirrindularitza denboraldia. Txirrindulari profesional eta afizionatu sakandarrak kontuan hartuta, zazpi txirrindulari ditugu guztira, joan zen urtean baino sei gutxiago. Jaitsiera nabarmena da

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Txirrindulari profesionalak 2025 denboraldiari ekin diote. Ohi bezala, Australiako Tour Down Under probak mustu zuen egutegia, urriaren 19an Eibarko Sari Nagusiak itxiko duena. Afizionatuen tropelak, berriz, asteburu honetan ekingo dio lanari, Iparraldeko Essor Basque lasterketaren lehen proba otsailaren 2an, igandean jokatuko baita, Kanbon.

Txirrindularitza ikuskizuna, beraz, martxan dago, eta aldaketa handiak izan dira Sakanan.

Sei sakandar gutxiago

Joan zen urtetik hona goitik behera aldatu da panorama. 2024an tropel profesionalean lau txirrindulari sakandar zeuden, eta afizionatuetan bederatzi txirrindulari sakandar. Aurten, ordea, kopurua askoz ere ba-

xuagoa da: tropel profesionalean hiru sakandar daude, eta afizionatuen tropelean, aldiz, lau txirrindulari.

Hiru profesional

Igor Arrietak (UAE Emirates) profesional gisa laugarren denboraldia du, eta UAE Emirates taldean bigarren denboraldia ekingo du. Uhartararak jautsi kualitatiboa ekingo du, lehenengoz arituko baita itzuli handi batean, Italiako Giroan hain zuzen ere. Murtzian mustuko du denboraldia, otsailaren 15ean.

PROFESIONALETAN IGOR ARRIETA, IKER MINTEGI ETA AILETZ LASA DIRA DAUDEN SAKANDARRAK

Iker Mintegi altsasuarrak (Euskaltel Euskadi) bigarren urtea du profesional, biak Jorge Azanza altsasuarrak gidatzen duen eskuadra laranja. Dagoeneko 2025 urteko lehen pedalkadak eman ditu Valentzia Komunitateko Klasikoan, eta asteburuan Frantzia ariko da, La Marseillaisen.

Ailetz Lasa ziordiarra dugu tropel profesionalean debutatuko duen sakandar bakarra. Afizionatuen mailan sei denboraldi aritu eta gero, Pro Tour kontinental mailako Portugalgo Ap Hotels Resort-Tavira taldearekin egin du salto profesionaletara. Portugalgo aukera probestu nahi du ziordiarrak.

Profesionalen mailan egon diren bajak hiru dira: Gorka Izagirre ziordiarrak (Cofidis) txirrindularitza utzi zuen joan zen urtean, Josu Etxeberria

iturmendiarra (Rural Kutxa-Seguros AGR) entrenatzen ari zela izandako istriputik osatzen ari da, eta Etxarri Aranatzen bizi zen Mulu Hailemichael etiopiarra (Rural Kutxa-Seguros AGR) talderik gabe geratu da.

Afizionatuak

Afizionatuen tropelean egon da gorabehera gehien. Aimar Tadeo lakuntzarrak taldez aldatu du eta Euskadi fundazioan ariko da aurten, Finisher taldea utzi eta gero. Kolore berdea laranja-gatik aldatu du afizionatuetan bere hirugarren denboraldia izango den honetan.

Bestalde, Mikel Uncilla etxarriarrak bere hirugarren urtea egingo du Rural Kutxa-Alea talde sakandarran. Aspaldiko partez sakandar bakarra izango du Rural Kutxak. Joan zen urtean Martxel Etxeberria iturmendiarra zuen taldekide, baina Etxeberriak ez du jarraituko.

Jubenil mailatik afizionatuetara salto egin duen sakandar bakarra Iker Gomez altsasuarra da. Quesos Albeniz-Burundako txirrindulariak Finisher taldea aukeratu du amateur mailan debutatzeko, eta kategoria berriari tamaina hartzeko irrikaz dago. Bestalde, Quesos Albenizko Gorka Mintegik azaldu duenez, joan zen urtean talde sakandarrarekin jubentzetan aritutako errioxarrak, Mikel Viloriak, Arabako Sigma taldearekin egingo du salto afizionatuetara.

Bukatzeko, Nahia Imaz da afizionatuen mailan lehiatuko den laugarren sakandarra. Altsasuarrak taldez aldatuko du.

Bajei dagokienez, Martxel Etxeberriaren bajari beste zenbait baja gehitu behar zaie: Adrian Martinez, joan zen urtean Caja Laboralen aritutako lakuntzarra, Jon Gil, joan zen urtean Supermercados Froiz talde galiziarrean aritutako lakuntzarra, eta Aitor Ondarra eta Iker Agudelo, joan zen urtean Hostal Latorre Ederlanen aritutako lakuntzarra eta altsasuarra. Azken orduko aldaketarik ez badago, ez dute jarraituko.

AFIZIONATUETAN MUGIMENDU GEHIEN EGON DA. TADEO, UNCILLA, GOMEZ ETA IMAZ DAUDE LEHIAN



Imazen brontzea. ARTXIBOA

Nahia Imaz Massi Baix Ter taldera

Nahia Imaz Perez txirrindulari altsasuarrak aurrerapauso nabarmena egin du: Bizkaiko Team Zatika Bike taldea utzi eta Kataluniako Massi Baix Ter taldera egin du salto, maila handiagoko taldera.

Txirrindulari altsasuarrak azaldu duenez, "talde berriak beste egutegi bat eskaini dit, eta niretako aukera polita da". Altsasuarrak Valentzian debutatuko du, otsailaren 13tik 16ra UCI mailako Setmana Ciclista - Volta Femenina de la Comunitat Valencianan.

Nahia Imazek iaz Espainiako Erlojupeko Txapelketan brontzeko domina lortu zuen, eta Nafarroako errepideko txapeliduna izan zen. Erlojupekoak gustuko ditu, eta espezialista handia da.

Kirol zuzendariak

Kirol zuzendarietan aldaketaren bat dago. Jorge Azanzak segitzen du Euskaltel Euskadiren kirol zuzendari nagusi, baina aurten bere esanetara Pablo Urtaşun kirol zuzendaria izango du, urdiaindarrak Kern Pharma utzi eta Euskaltelera jo duelako. Oscar Guerrero altsasuarrak Israel Premier Tech taldeko kirol zuzendarietako bat izaten jarraitzen du, eta Jose Luis Arrieta kirol zuzendari izatera itzuliko (iaz Decathlon Ag2r taldean egon zen) ez dago argi.



Saskibaloia aitzakia hartuta ongi pasatzeko aukera izango dute emakumeek. ARTXIBOA

Oraingoan, saskibaloiarekin lagun egiteko txanda

SASKIBALOIA Emakumeendako kirol topaketen barruan, Irurtzunen saskibaloian bilduko dira otsailaren 16an

M.B.G. IRURTZUN

Kirola emakumeak elkartzeko bide egokia dela jabetuta, 2024an Sakanako Mankomunitateko Kirol, Berdintasun, Euskara eta Kulturartekotasun Zerbitzuek Emakumeak Kirolean Lagun Kirol Topaketak antolatu zituen. Horrela, zenbait kirol topaketa egin dira, erantzun onarekin: padela Arbizun, areto futbola Olaztin, mendi irteera Etxarri Aranatzen, zoru pelbikoa lantzeko ariketak Lakuntzan...

Emakumeendako Kirol Topaketak bueltan dira eta otsailaren 16an Irurtzungo kiroldegia

"Emakumeak saskibaloian lagun" ekimena hartuko du. 10:30etik 13:00etara bitartean, izena ematen duten emakumeek saskibaloia ezagutzeaz eta egiteaz gain, elkarren artean ezagutu eta harremanak josi eta saretzeko aukera izango dute.

Izena ematea, zabalik

Ekimena doakoa da baina aurretik izena eman beharra dago, otsailaren 12ra arte, Mank-en (kirolak@sakana-mank.eus, 948 464 866). Behar duenak taxi zerbitzua izan dezake, eta haurrendako zaintza zerbitzua izango da.



CBASK

CBASK, Palestinarekin

SASKIBALOIA CBASK-eko bi talde nagusiak Israelgo Maccabi taldearen zurriztearen aurka eta Palestinaren alde azaldu ziren larunbatean Zelandin. Mutilen bigarren maila autonomikoan CBASK-ek 80-79 irabazi zion Humiclimari, eta nesken lehen senior mailan CBASK-ek 52-28 hartu zuen mendean Valle de Egües, eta bigarren fasean 1-8 postuetan lehiatuko da.

"Xakeak beste jarrera bat eskatzen du; asko gozatzeko dugu"

KOLDO FLORES LAZKOZ ZALDI BELTZA XAKE TALDEA

XAKEA Zaldi Beltza Xake Taldeko sortzaileetako bat da Koldo Flores lizerrengotarra. Taldera batzera animatu ditu sakandarrak

Maidar Betelu Ganboa

LIZARRAGABENGOA

Sakanan xakeak izen bat du: Zaldi Beltza Xake Taldea. Koldo Flores Lazkoz da sortzaileetako bat, beste sakandarrekin batera, eta oraindik xakearekin guztiz harrapatuta jarraitzen du. Sakanako Xake Txapelketan hirugarren sailkatu zen, eta sakandarrak taldera gerturatzerako gonbidatu ditu.

Non ikasi zenuen xakean jokatzen?

Etxean ikasi nuen, anaiarekin, baina handik urte batzuetara, espetxean nengoela, hasi nintzen fundamendu xakean. 8x8 aldizkaria erosten nuen, eta xakeari buruz asko irakurtzen nuen. Atera nintzenez xake torneotan parte hartzen hasi nintzen. Mikel Markotegi etxarriarekin Iruñera joaten ginen txapelketetara, baina talderik gabe, gure kontura. Denborarekin, jendea ezagutu, eta Iruñeko Arrano elkarte taldearekin hasi nintzen jokatzen. Orduan Sakanatik Mikelek eta biok parte hartzen genuen txapelketetan; geroago batu ziren besteak.

Sakanako hainbat xakelari elkartu zinetenean erabaki zenuen Zaldi Beltza sortzea?

Bospasei urte egin nituen Arranon jokatzen, eta orduan hasi ginen Sakanan taldea ateratzeko aukera egon ote zen aztertzen. Xakean aritzen zen jendea ezagutzea eta egitasmoaren propaganda egitea ez zen erraza, eta

Olaztin Sakanako Txapelketa bat antolatzea erabaki genuen; hau ez zen gaur egun Sakanako Mankomunitatearekin batera antolatzen dugun txapelketa, gure kabuz antolatutakoa baizik. Hogei lagun baino gehiagok eman zuten izena, guztiak sakandarrak. Batzuek ideia gehiago zuten, beste batzuek gutxiago... denetatik zegoen. Handik taldea sortzeko oinarria atera zen. 90. hamarkadan izan zen.

Taldearen izena ezin hobea da: Zaldi Beltza. Nori bururatu zitzaion?

Niri. Lehendik ardi beltzak bazeuden, ordutik aurrera zaldi beltzak baita ere (kar-kar). **Zer egiten du zaldi beltzak xakean?** Eramaten duzun tokira joan. Ez da oso pieza garrantzitsua. Erregea, erregeina, gaztelua, eta gero alfila eta zaldia da, gutxi gorabehera, pieza esanguratsuen ordena. Zaldia Litxuran mugitzen da.

Xakea borroka bat da.

Bai, erregea hil edo jan behar duzulako.

Zaldi Beltza taldea sortu bezain pronto, Nafarroako Xake Txapelketetan eta bestelakoetan lehiatzen hasi zineten.

"LEHENDIK ARDI BELTZAK BAZEUDEN, TALDEA SORTZETIK AURRERA ZALDI BELTZAK BAITA ERE"

Hasiera hartan izan genuen talderik indartsuena. Etxarri Aranazko udalean lan egiten zuen iruindar bat eta Arabako bat gurekin hasi ziren, eta maila oneko taldea lortu genuen, garrantzitsua. Xakean maila ezberdinak daude, eta gu lehen mailara iritsi ginen, urteak egin genituen maila hartan, eta maila ona ematen, gainera. Ongi aritzen ginen. Sebas Insausti, Alberto Urkia, Juan Andres Cerro, Cesar Razkin, Mikel Markotegi... talde ona genuen.

Aldi berean Andra Mari ikastolan xake ikastaroa ematen hasi zineten.

Jexus Senar Andra Mari ikastolako soin heziketako irakasleak sustatu zuen ikastaroa eta urte luzez eskaini genuen. Cesar Razkin, Sebas Insausti, Alberto Urkia, ni neu... aritu izan gara xakearen hastapenak irakasten, astero ordu batez. Hasieran 40 ikasle inguru animatu ziren, eta gero kopurua jaisten hasi zen, baina gustura aritu ginen. Sebas Insausti ere Etxarri Aranazko eskolan aritu zen klaseak ematen. Kontua zen bukaeran ikastaro orduak deklaratu behar zirela eta arazoak sortu ziren, guk beste lanbide batzuk genituen ez zelako bideragarria; azkenean utzi genuen.

EDOZEINEK JOKA DEZAKE Xakean jokatzea zaila da?

Ona izatea zaila da, baina jokatzea ez. Edozeinek joka dezake,



Koldo Flores Lazkoz hirugarren sailkatu zen berriki Etxarri Aranatzen jokaturako 24. Sakanako Xake Txapelketan.

arauak erraz barneratu daitezke. Gero ona edo txarra den, hori beste kontu bat da. Zu nolako jokalaria zaren eta nola planteatzen dituzun estrategiak, hori da kontua. Eta zenbat denbora eskaintzen diozun.

Zer egin behar da ona izateko?

Ordu asko sartu. Lehen, 8x8 eta halako aldizkariak eta bestelako teoria eta jokaldiak irakurtzen genituen, baina orain dena dago ordenagailuan. Talde garrantzitsuek, esaterako Oberenak, gazteak trebatzeko irakasleak dituzte liberatuta, 12, 13 edo txikiagoak diren neska-mutilak trebatzeko. **Xakeak dedikazio asko eskatzen du?**

Zuk eman nahi diozuna edo ahal duzun dena.

Xake modalitate asko daude: partida luzeak, ertainak, motzak...

Txapelketa antolatzaile bakoitzak, federazioak edo klubak, erabakitzen du nolako txapelketa nahi duen. Partida normalak agian ordu bat edo ordu eta erdikoak dira. Sakanako Xake Txapelketa 15 minutukoa da.

Partida azkarretan berehala di-da hasi behar duzue piezak mugitzen?

Azkarregi mugitzen baduzu eta okertzen bazara, partida galduko duzu. Oreka bat lortu behar duzu. Motzen barruan badaude ere 5 minutuko partidak. Lehen jokatzen genuen, baina nik aspaldi

ez. Nafarroan neurri guztietako partidak antolatzen dira. Zaldi Beltzakoak lehen modalitate askotan aritzen ginen: taldeka, partida azkarretan, talde bat beste baten kontra... Zein taldek atera dituen puntu gehiago baloratzen da.

Sakanako xakelari guztiak Zaldi Beltza taldean zaudete?

Gehienak bai, baina batzuk Iruñeko edo Gipuzkoako bestelako klubetakoak dira: Ismael Anton Legazpikoa, Santi Gonzalez Grosakoa, gaztetxo batzuk Oberenakoak... Bere garaian talde bat sortu zen Altsasun, Laukia izenekoa, baina ez zen aurrera atera. Altsasuarrak ere Zaldi Beltzakoak dira: Cerro, Castellano, Barriga, Lizarraga... Egun sei-zazpi lagun gara Zaldi Beltzan, Cesar Razkin, Sebas Insausti eta ni neu kontuan hartuta.

Taldekako txapelketetan lehiatzeko zailtasunak dituzue.

Taldekako txapelketetan lehen zortzi xake taulatan jokatzen zen, beraz talde bakoitzeko zortzi pertsona behar ziren, eta egun sei

"XAKEAN JOKATZEA EZ DA ZAILA; ONA IZATEA DA ZAILA. ONA IZATEKO ORDU ASKO SARTU BEHAR DIRA"

xake taulatan jokatzen da. Beraz, ziurtatu behar duzu txapelketak irauten duen epean astebururo sei xakelari aurkeztea, norbaitek huts egiten badu partida galdua ematen baitzaio taldeari, gehi santzio puntu bat. Jende asko behar da, eta taldeka urte asko egon gara ezin lehiatu.

Beraz, sakandarrak Zaldi Beltzara hurbiltzea animatuko ditugu?

Jakina! Nafarroako talderik onenak Iruñea eta Tuteran ingurukoak dira, lauzpabost talde. Zaldi Beltzekoek nahi duguna da txapelketetan jokatzea, besterik ez. Hortaz, norbaitek gurera etorri eta xakean jokatu nahi badu, atean ez dago adin mugarik; beraz, edonor animatu ahal da.

SAKANAKOAN HIRUGARRENA Abenduan Etxarri Aranazko Larrañeta elkartearen jokaturako 24. Sakanako Xake Txapelketan hemeretzi jokalariren artean hirugarren sailkatu zinen. Goian egotea espero al zenuen?

Ez. Hor suertea behar da. Honekin jokatu, bestearekin jokatu, ezberdina izaten da. Partida parkekatzeak ELO puntuazioko rankinga kontuan hartuta egiten dira. Sakanako Txapelketa egunean 1713 ELO puntu nituen. Lehen puntuazioari garrantzia ematen nion, baina orain ez. Pun-

tu gehien 1750etik gora izan nituen, aspaldi. Txapelketetan jokatu ahala zure puntuazioa aldatzen eta eguneratzen doa, etengabe. Zure parean dagoen norbaitek galtzen baduzu, puntu gutxi galduko dituzu, baina zu baino askoz ere txarragoa den batekin galduz gero, ELO puntu dezente galduko dituzu. Sakanako Txapelketan ni hasierako rankingean bederatzigarren nintzen. Eta hirugarren gelditu nintzen, ELOan igo nintzen, eta egun 1717 puntu ditut. Gainera, hirugarren posturako hiru puntutara berdinduta geratu ginen, eta berdinketa haustea niretako izan zen.

Hori nola egiten da?

Berdinketa haustea egiteko formula edo sistema ezberdinak daude, hiruzpalau. Txapelketa bakoitzak aurretik zehaztua du zein sistema erabiliko duen. Puntu berdinak daudenean, sailkapena zehazteko erabiltzen da.

Irabazlea Joseba Otano izan zen.

Aspaldiko ezaguna da, Arrano taldeko aspaldiko kidea. Nire atzetik Iraitz Mauleon etxarriarra sailkatu zen, eta gainontzekoak errenkadan.

Sakanako txapelketan jokalarik gazteak faltan bota genituen.

Sakanako Txapelketak badu oihartzuna Iruñerrian. 40tik gertu egon izan gara parte hartzen. Aurtan Nafarroako Xake Federazioak gure txapelketaren egun berean 12, 14 eta 16 urtez azpiko Nafarroako Txapelketa antolatu zuen, eta guretako labankada bat izan zen, gazte horiek faltan bota genituelako, tartean sakandarrak. Eta pena izan zen, jendea gustura etortzen delako Sakanako Xake Txapelketara. Urtero Sakanako herri ezberdinean izaten da, elkarrekin bazkaltzen dugu... gustura egoten gara.

ZALDI BELTZARI, EUTSI

Sakanako Zaldi Beltza nola ikusten duzu? Eta xakea Sakanan?

Nekez. Egon da jendea utzi duena, baina hasi ginenak jarraitzen dugu, eta batu direnekin batera tenkor eusten diogu. Xakean jokatzea burua erne mantentzeko aukera ederra da.

"LEHEN XAKEAN NUEN ELO PUNTUAZIOARI GARRANTZIA EMATEN NION, BAINA ORAIN EZ"



"Ordenagailuan xakean gehiegi jokatzen dut"

KOLDO FLORES LAZKOZ XAKELARIA

Zer nahiago, beltzekin edo txuriek jokatzea?

Tokatzen zaizkigun fitxekin jokatzen dugu; berdina zait.

Zein da zure idoloa?

Anatoli Kárpov oso gustukoa nuen. Egun, munduko txapelduna Dommaraju Gukesh hindua da, orain arte munduko txapeldun izan den gazteena da, 18 urterekin. Txapelketak jarraitzen ditut, baina gustuko dudana da Garak kaleratzen duen xakeari buruzko joko egitea.

Ordenagailuan xakean jokatzen duzu?

Kar-kar) Gehiegi!

Asko ikasten al da?

Online jokatzeak arrisku bat du: partida bukatzen denean badakizu beste bat duzula; hortaz, ez duzu dena ematen. Ikasi, berez, ez. Beste jokalarik batekin jokaldiak aztertzen ikasten da.

Xakearekiko zure zaletasunak bere horretan jarraitzen du?

Bai. Lehen gehiago aritzen nintzen. Partidak jokatu eta hurrengo egunean batez ere Sebasekin biltzen ginen partiden mugimenduak erreparatzeko: akatsa non egin genuen ikusi, eta egin beharrekoa aztertzeko.

Xakelariak bereziak omen zarete, espezialak.

Ez ba! Xakean jokatzea ez da ohikoa, beste jarrera bat eskatzen du. Errazagoa da bestelako kirol batzuetan aritzea. Hau zailagoa da, baina disfrutatzen dugu.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 31

ALTSASU Gazte agenda.

Sexgunea sexualitate aholkularitza zerbitzua doan eta konfidentziala.
17:30ean, *Intxostiapuntan*.

EUSKARAZ**ALTSASU Ipuin kontaketa eta tailerra.**

Askatasun doinua Palestinaren inguruko ipuinarekin kontakizuna eta tailerrak Mitxel Elortza eta Mariñe Jauregi egileen eskutik.

18:00etan, *Iortia kultur gunean*.

ALTSASU Hitzaldia

Ola Arafat Salan Gaza Nafarroako kidearen hitzaldia, elkarteak Gazan egin duen eta egiten ari denaren inguruan. Sakana Harrera Haranak eta Salam Gaza Nafarroak antolatuta, Altsasuko Udalaren laguntzarekin.

18:00etan, *Iortia kultur gunean*.

OLATZAGUTIA Pintxopotea eta kontzertuak.

Maisueña gaztetxearen pintxo potea. Ondoren, kontzertuak: Broken Pick eta TCBB taldeak.

19:00etan, *Maisueñean gaztetxean*.

ALTSASU Kontzentrazioa.

Azken ostirala. Behin betiko etxera elkarretaratzea.

19:30ean, *udaletxearen aurrean*.

IRURTZUN Kontzentrazioa.

Azken ostirala. Behin betiko etxera elkarretaratzea.

20:00etan, *San Martin kalean*.



ALTSASU Stop Genozidioa eskultura erakusketa Artistak Genozidioaren Aurka eta Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarteak antolatuta, Altsasuko Udalaren eta Iortiarenekin laguntzarekin. Otsailaren 2ra arte. Igandetik ostiralera 17:30etik 19:45era eta larunbatetan 19:00etatik 20:00etara. *Iortia kultur gunean*.



ARTXIBOA

ALTSASU Artekleta: Bizikletei bide Altsasu BHIk sortutako erakusketa. Otsailaren 5etik 23ra. *Iortia kultur gunean*.



BAZTERRETIK

IRATI EIZAGIRRE SAGASTIBELTZA

Emakumeak ikerkuntzan



ZINEMA

ALTSASU

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Juego de ladrones 2: pantera

Igandea 2 19:30
Astelehena 3 19:00

Bambie

Igandea 2 17:00

La acompañante

Osteguna 6 19:00

IORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Desmontando un elefante

Igandea 2 17:00
Igandea 2 19:30

Itoiz Summer Sessions

Osteguna 6 19:00

Er^viti aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioeserviti.es



Azkartasun handiko zerbitzua

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

ARBIZU Kontzentrazioa.

Azken ostirala. Behin betiko ebxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ETXARRI ARANATZ Kontzentrazioa.

Azken ostirala. Behin betiko ebxera elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

EUSKARAZ**ETXARRI ARANATZ Afaria eta bertso saioa.**

Afaria eta bertso saioa: Ekhiñe Zapiain eta Aratz Igarzabal. Etxarri Aranazko Gazte Asanbladak antolatuta.
Gaztetxean.
21:00 Afaria.
22:00 Bertso saioa.

LARUNBATA 1**ALTSASU Batzarra.**

Altsasuko Gazte Asanbladaren asanblada irekia. Gaiak: aktibatuko bi proiektuen azalpena, epe luzerako planteatutako proiektuak, eraikinaren obraren planteamendua, aurtengo ekimenak eta epe luzerakoak eta antolakuntza ereduak.
11:30ean, **gaztetxean.**

ALTSASU Gazte agenda.

Santa Ageda ospakizunaren bilaera ekimena.
18:00etan, **Intxostiapunta gazte gunean.**

IGANDEA 2**OLATZAGUTIA Areto futbola.**

Sakanako Benjaminen Areto Futbol - Futbol 8 Topaketa.
Kiroldegian.

10:00 Altsasu KE - Arbizu KT.

11:00 Altsasu SD - Arbizu.

12:00 Sutegi - Aralar Mendi.

EUSKARAZ**ALTSASU Antzerkia.**

Urargi sei hilabete eta lau urte bitarteko haurtxoendako antzerkia. Sarrerak agortuta.
11:00etan eta 12:30ean, **lorria kultur gunean.**

ERGOIENA Bozketa

5G teknologia duen antena bat instalatzeari buruzko bozketa.
12:00etatik 14:00etara, **kontzeju etxeetan.**

ETXARRI ARANATZ Urrezko aizkolaritza.

2025eko Urrezko Binakako Aizkolari Txapelketa – Eusko Label Saria: Julen Alberdi 'Txikia IV' – Jon Rekondo / Ugaitz Mugertza II – Ibai Sorroa (Iana: 20 enbor – 5 izakera); Binakako Aizkolari Txapelketa – Sub. 23: Joan Goikoetxea – Amets Aristizabal; Jon Erdozia – Unai Etxeberria 'Osinalde'; Aritz Oiarbide – Isidro Velasco. Banakako Harrijasotzaile Txapelketa: Gizonezkoak: Gorka Etxeberria; Emakumezkoak: Udane Ostolaza. Etxarri Aranazko Udalak antolatuta.
12:00etan, **Euskalerriri frontoian.**

ALTSASU Gazte agenda.

Santa Ageda ospakizunaren bilaera ekimena.

18:00etan, **Intxostiapunta gazte gunean.**

ASTELEHENA 3**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, **udaletxearen aurrean.**

OSTEGUNA 6**OLATZAGUTIA Irakurketa dramatizatua.**

Viaje a la nada irakurketa dramatizatuta: Formatu txikiko eta hurbiltasuneko antzerkia, gazte eta helduendako. Ana Maestrojuan zuzendaritzapean; Ventura Ruiz, Patxi Larrea, Asier Andueza eta Ana Maestrojuan dramaturgiarekin eta Izaskun Lasartek eta Angel Garcia Maneok antzeztuta. Literarte III. Jaialdiaren barruan.
19:00etan, **liburutegian.**

OSTIRALA 7**EUSKARAZ****ETXARRI ARANATZ Bakarrizketa.**

Irrizikloa: Ana Goitiaren *Katana* bakarrizketa saioa.
Sarrerak: 6 euro.
19:00etan, **kultur etxean.**

OLATZAGUTIA Irakurle kluba.

Olatzagutiko irakurle kluba: *Vestido de novia*, Pierre Lemaitre idazlearena.
19:00etan, **liburutegian.**



JAIOTZAK

- **Egoi Artieda Zabala**, urtarrilaren 21ean Lakuntzan.
- **Simai Natasha Maldonado Albarran**, urtarrilaren 17 Iturmendin.

HERIOTZAK

- **Margarita Pagola Asurmendi**, urtarrilaren 28an Olaztin.
- **Cecilia Martinez Mugica**, urtarrilaren 16an Altsasan.
- **Micaela Huarte Elordi**, urtarrilaren 19an Uharte Arakilen.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

EGURALDIA ASTEBURUAN**Ostirala, 31****Larunbata, 1****Igandea, 2****Astelehena, 3**

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZA barne dute.
- Bazkideek %10eko deskontua dute.
- Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizeko 12:00ak baino lehen.


Jarri zure iragarki laburra!
948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

☎ 948 19 70 70
📧 @Grupolrache
📱 Grupolrache
🌐 www.tanatoriosirache.es



'Stop Genozidioari' erakusketa, Iortian.

Sarraskiaren artean, artea

Ilbeltzaren 17an Artistak Genozidioaren Aurka taldeak eta Euskahaldunak Eskultoreen Elkarteak *Stop Genozidioari!* eskultura erakusketa mustu zuten, Altsasuko Iortia kultur gunean. Igandera arte ikusgai dago; bertan 50 bat eskultoreren lanak ikus daitezke

ALTSASU

"Artistok ezin gara axolagabe geratu Israelgo estatua Palestinan egiten ari den sarraskiaren eta genozidioaren aurrean". Artistak Genozidioaren Aurka taldeak, Sakanako Artebidekoak barne, eta Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarteak elkarlanean *Stop Genozidioari!* erakusketa egin dute Altsasuko Iortia kultur gunean; ilbeltzaren 17an mustu zuten eta otsailaren 2ra arte, igandea, ikusgai izanenda. "Gatazka zahar hau gizakiak azken hamarkadetan egindako sarraskirik okerreanean eta krudelenean bihurtu dute", gaineratu dute artistek erakusketaren oharrean.

Euskal Herriko artistek "Palestinako herriarekin duten konpromisoa erakutsiz" sortu dute erakusketa ibiltaria. 50 bat eskultorek parte hartu dute, eta


bakoitzak lan bat egin du, "artearen bidez kontzientziak pizteko eta bizitza eta justizia defendatzeko konpromiso handiago hartzeko asmoz". *Stop Genozidioari!* erakusketan, beraz, artearen bidez Palestinan bizi diren egoerak islatu dituzte. Erakusketa "polita", baina "gogorra" ere bada, ikusleen esanetan.

Artistak

Stop Genozidioari! erakusketan parte hartu duten Artistak Genozidioaren Aurka taldeko kideak eta Euskahaldunak Eskultoreen Elkarteak hauek dira: David

50 BAT ARTISTEK PARTE HARTU DUTE ERAKUSKETAN; PALESTINAREN EGOERA ISLATU DUTE

Abajo, Felix Alangua, Luisa Aldaburu, Koke Ardaiz, Arantxa Arratibel, Elena Arrese, Anabel Barberena, Josu Bayo, Rafa Cantera, Cristina Cerdan, Karol Colomo, Amaia Conde Chiralt, Mikel Costa, Fito Cuevas, Cuichan, Joserra Elorriaga, Silvia Etxeandia, Joseba Galarza, Ana Herranz, Mafijostai, Porriño, Michel Ruiz, Jose Antonio Larrauri, Fertxu Martinez, Alfonso Mateo, Mikel Mesanza, Guillermo Olmo, Alicia Oses, Javier Perez Fabo, Leire Sainz de Aja, Belen Urutxurtu, Karen Amaia, Jokin Arman, Ramon Balerdi, Jon Iñaki Ormazabal, Helena Santano Cid, Maite Miguel Zufiaurre, Lali Burgoa Urdiain, Koldo Arnanz Zufiaurre, Iñaki Fernandez Iturmendi, Mikel Montesinos, Sagri Mauleon Ezkutari, Ines Gonzalez de Zarate eta Jose Luis Gonzalez Pazos.



Hamargarrenean, Zamari agur

'Azken doinuak etxerantz' jaialdia izan zen ilbeltzaren 24an eta 26an, Etxarrin. Eñaut Elorrietak, Bulegok, Gatibuk, Porrotxek, Nogenek, Brigade Locok, Gorka Urbizuk, Juantxo Arakamak, El Drogasek, Zea Maysek eta ZETAk jarri zioten ginda ekimenari

ETXARRI ARANATZ

Asteburu berezia izanen zela aurreratu zuen Mikel Mundiñano *Zama Doinuz Arindu* jaialdiko antolakuntzako kideak. Herrian "sustraituta" zegoen elkartasun kontzertuaren hamargarren edizioa zen, eta azkena; "merezi duen amaiera" ematea erabaki zuten. Hortaz, azkena izanik, "dena desberdina" zen: egun barrean ospatu beharrean ilbeltzaren 24an eta 26an izan zen jaialdia, eta Etxarri Aranazko kultur etxetik, gaztetxera eta San Donato herri eskolako frontoira lekualdatu zuten. Ia 200 boluntariok parte hartu dute Azken doinuak etxerantz jaialdia antolatzen. "Zapore onarekin" esango diote agur "zama arintzen lagundu" duen ekimenari.

Azken doinuak etxerantz jaialdiaren lehenengo kontzertuak ostiralean gaztetxean izan ziren Unidad Alavesa, Skabidean eta Malandro DJ taldeenak izan ziren. Iganderako *Sarrerak agortuta* kartela aspaldi zintzilikatu zuten; frontoia bete zen. Zigor DZk eman zituen lehenengo doinuak, eta ikuskizuna hasi aurretik giroten joan zen. "Mila esker hamar urte hauetan etorri zaretenoi eta zama arindu duzuenoi; ea betirako den" bideo batek hasiera eman zion emanaldiari, eta Jon Barbrin Ihabarren bizi den antzezlea agertu zen oholtzan dantza bat eginez. Ondoren, Eñaut Elorrietaren unea izan zen.

Musikari bakoitzak bi kanta interpretatzen zituen, akustikoan. Hori izan da *Zama Doinuz Arindu*-ren dinamika hasieratik. Elorrietaren ondoren Bulego taldea izan zen, *Hegan* eta *Bueltan* abestien bertsioak jo zituzten. Etxarrikoa bezalako jaialdi bat antolatzea posiblea egin duen auzolanaren garrantzia goraiatu zuten.

Gatibu izan zen hirugarren taldea eta, ondoren, Porrotx agertu zen, eszenatokitik kanpo, eta Edo akordeoilari lakuntzarrekin batera alfonbra gorria zeharkatuta, oholtzara igo zen. Bertan preso, iheslari eta deportatuak gogoan izan zituen eta *Agur bat lagun maite* kantua egin zuen. *Epoitaiye* abestu ondoren jaialdiko antolakuntzari pago bat oparitu zien; Xochitl Karrasatorrek jaso zuen; motxiladun umea izan da eta aita espetxean duelako, gaineratu zuen pailazoak.

Nogen izan zen *Azken doinuak etxerantz* jaialdiaren oholtzara igotzen hurrengoa, eta haren atzetik Brigade Loco taldea aritu zen. Gorka Urbizu izan zen ondoren, eta *Etxe bat* abestiarekin "etxera, denak etxera" aldarrikatu zuen ere. *Maravillas* kanta ere interpretatu zuen. Juantxo Arakamak dantzan jarri zuen frontoia, eta bertso bat bota zuen ere.

No hay tregua abestiarekin hasi zuen El Drogasek bere emanaldia. Bigarren abestia Nogen taldekoekin egin zuen, *Al salir la luz*. Zea Mays taldeko Pitik eta Aiorak *Elektrizitatea* kanta

**OSTIRALEAN ETA
IGANDEAN OSPATU
ZUTEN AZKEN 'ZAMA
DOINUZ ARINDU'
JAIALDIA**

**KONTZERTUAN
HAMAIIKA ARTISTEK
PARTE HARTU ZUTEN;
ELKARTASUN MEZUAK
IZAN ZIREN**

mitikoa eskaini zuten, eta ondoren *Negua joan da ta ezaguna* ere abestu zuten: "Badakizue, neguak ere bukatu egiten dira".

Zama Doinuz Arindu jaialdiko azken aurreko notak Pello Reparazen ZETAk taldeak eman zituen. Maixux Zugarramurdi eta Ansa ahizpekin batera *Hileta kantu nafarra* abestia interpretatu zuten. Erramun Martikorena agertu zen gero oholtzan, eta *Xori erresinula* abesten zuen bitartean, Reparaz eszenatokira abiatu zen muletak lagunduta. Behin arbizuarra oholtzan zegoela *Itzulera* abestu zuten, Gorka Pastor ZETAk kidea pianoan zegoela. Amaitzeko Martikorenak duela gutxi zendu zen Mixel Aire *Xalbador II*-ri eskainita *Xalbadorren heriotzean* kantatu zuen.

Azken zama

Musika emanaldiak amaituta Juanpe Agirre, Maider Ansa eta Estitxu Pinatxo antolakuntzako kideak agertu ziren. *Zama Doinuz Arindu* etxerari gutxi batzuen ideia izan zen, eta jaialdi handi batean bihurtu zen. Atzean dagoen lana azaldu zuen Ansa, eta "mimo, maitasun eta ilusioa" ere bueltan jaso dutela. Ikuski-zunarekin amaitzeko parte hartzaile guztiak oholtzara igo ziren eta *Azken doinuak etxerantz*, azken *Zama Doinuz Arindu*-rako sortutako abestia kantatu zuten.

Urtero 400 ikusletik gora izan du jaialdiak, kultur etxearen aretoa bitan betez. *Zama doinuak* arinduren lantaldean hamar bat pertsona lan egin dute, eta auzolanean urtero 50 bat pertsona. Aurten zenbakia lau koiztu da, eta 200 bat pertsona egon dira *Azken doinuak etxerantz* jaialdia aurrera ateratzeko lan egiten.



'Azken doinuak etxerantz' jaialdiko parte hartzaileak ikusleekin. ZDA



Antolakuntza taldeko kideen hitzak.



Edor akordeoilari lakuntzarra eta Porrotx.



ZETAk, Maixux Zugarramurdi eta Ansa ahizpen emanaldia eta ikusleak.

"Maizan etxeko lan tresnak dira guztiak"

Bakaikuko dendari pegatuta dagoen Maizan etxean, etxeko lanabes zaharrak balkoi azpian zintzilikatu ditu Jesus Mari Zeberio Lopez de Zubiriak, txoko berezia sortuz. Etxe barruan kutxak eta bestelakoak ditu, Mari Carmen Arraras emazteak zaharberitutakoak

Maidar Betelu Ganboa BAKAIKU

1 Maizan etxeko semea zara.

Martina Maiza nire birramona zen, eta hortik dator etxearen izena. Katxo etxea ere deitzen diote, aitonari *Katxo* deitzen ziotelako. Nire aita etxarriarra zen, eta nire ama bakaikuarra, etxe honetakoa. Berandu ezkondu ziren. Ni seme bakarra naiz, eta 47 urterekin erditu ninduen amak. Beti esaten dut kasualitatez jaio nintzela, justu-justu.

2 Etxe polita duzue, eraberritua.

Gurea, etxe oso zaharra zen. Nik etxea berri nahi nuen, baina amak ezetz, eta Iruñean pisua erosi genuen. Iruñean bizi ginen, baina Bakaikuko denda gainean pisua genuenez, bertara etortzen ginen. Etxe zaharra berritzeko ilusioa nuen beti. Jubilatzerakoan konponduko nuela esaten nuen, baina emazteak animatuta duela 21 urte berri genuen, eta pisua saldu.

3 Etxe zaharretik ahal zenuten guztia aprobetxatu al zenuten?

Bai. Gure etxe ondoko etxea erosi genuen, eta gure etxe zaharretik gorde izan genuen guztia bertara eraman genuen obra egin bitartean. Maizan etxea hormigoizkoa eta harrizkoa da, baina etxe zaharreko zurak eta bestelakoak ditu. Obra egin baino lehen gauza asko ere bota genituen: aitonarenak izan ziren zurezko muleta batzuk, lihoa landu eta egiteko makina bat, zumezko saskitxo bat, etxekoren bat hiltzen zenean elizara eramaten zena, bertan bi puntako argizari biribilkia jartzeko, Ameriketara joan etorria egin zuen maleta... Orain pena ematen dit.

4 Gordetutako gauza zaharren artean batzuk etxeko paretan jarri dituzu, balkoi azpian.



Jesus Mari Zeberio Lopez de Zubiria, Maizan etxean.

Gauza zahar asko genituen. Pentsatu nuen: zer egingo dut hauekin guztiak? Oiartzunen bizi den semeak esaten zidan etxe barruan katxarro gehiago ez jartzeko, eta non jarriko nituen bestela? Ba kanpoko paretan.

5 Izan ere, Bakaikuarrak katxarrreroak zarete.

Bai, halakoak gara (kar-kar). Gehienak nekazari lan tresnak dira, burnizkoak. Lixatu nituen, erretako olio eman nien, olio beltza, zurezko elementuei ber-niza, eta gero Bakaikun bizi den semeak jarri zituen paretan. Txoko polita gelditu da.

6 Denak Maizan etxekoak dira?

Bai, guztiak. Batzuk erabili izan ditut, baina gehienak ez.

7 Zeintzuk dira zintzilikatu dituzuenak?

Laiak, igitaiak, guraizeak, tron-tza, aitonaren zurgintzarako eskuila handia, zuloak egiteko hiru tarratilu, zulo finagoak egiteko birbikila, beheko suan sukaldatzeko tresnak: elatzua edo pertzak zintzilikatzeko katea, eta trebera, su gainean jartzen zena, bertan eltzeak edo bestelakoak jartzeko. Bestalde, zepo bat, romana edo pisatzeko tresna, gure etxe zaharrak zuen aldaba, zuhaitzak botatzeko erabiltzen zen txinga, zurean sartzen zena eta bertatik tira egiten zena, animalien karrera kargatzeko, aizkoraren kirtanak egiteko maraskoa, uztarria...

8 Aker baten burezurra ederra baita ere.

Bai, badut behi baten burezurra ere, elegantea, menditik jaitzita, baina kendu behar izan dut etxekoek esaten didatelako

gehiegizkoa dela. Oilategi baten atean jarri dut.

9 Zer esaten dizuete bizilagunek? Gustatu al zaie?

Batzuek diote ongi geratu dela, besteren batek dio teillatu-hegala jarri behar niola lan tresnak babesteko... denetatik.

10 Ezkaatan ere oroigarri zahar asko dituzue jarrita.

Nire aitaren bizikleta zaharra, Katxarro egunera eraman izan dudana, ondoko etxeko beheko suko elatzuak, gure etxean esnea berotzeko erabiltzen genuen per-tzari lotuta, liburu zaharrak, *Katxo* aitonaren betaurrekoak, karraka, plantxa, ohea berotzeko tresna, elizako belaualkia, Juana Galarza nire amandarearen

(amona) inizialekin... Ezkaatze-ko kutxa emazteak zaharberritu zuen; leuna zirudien, baina lixatzen hasi, eta argizarien kapen azpian tailatutako irudiak agertu zitzaizkion. Nire amandreak 8 pezeta ordaindu zituen kutxarengatik, Bakaikun. Ganboikoan dugun beste kutxa bat nire birramonak ekarri zuen Ataundik. Zurezkoa da, guztiz, iltzerik erabili gabe, eta leuna, tailarik gabe. Behin Donostiako San Telmo museoan kutxa horren berdina ikusi genuen; toki berebean egingo ziren, ziur.

11 Honek ez al dizue antigoaleko edo antzinako gauza gehiago erosteko zaletasunik piztu? Ez ba! Traste gehiago ez ditugu behar. Bakarrik etxeoak.



gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

Eraldatu zure irudia

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

gik DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

619 821 436 | Foru plaza, 23-1. Altasasu
info@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe